

noaua

**Udarregiren omenezko
eskulturak, 50 urte**

**Udajolas: izen-emate
guztiak onartuak**

Igandean, San Ixidro



**GurasOS: “Guk ez dugu interes politiko edo ekonomikorik.
Bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu”**

URTINEA

berriro zuekin!

Zatoz eta jantzi kolorez zure etxe, balkoi zein lorategia!

Era guztieta aukerak oparitzeko! Garaiko loreak, frutarbolak, loreontziak...

San Esteban auzoa, Usurbil 943 36 22 55

BIDAIA TALDEAN
Irteera Lasarte-Oriatik

ISLANDIA

aurora borealak
- ABENDUAREN 3TIK 8RA -

Erreserbak eta informazioa bulegoan

NOAO BIDAIAK
GRUPO CLICK VIAJA

Hipodromo Etorbidea, 10
20160 Lasarte Oria, Gipuzkoa
T. 943 373 613
info@noaobidaiak.com
www.noaobidaiak.com

ZURE AMETSETAKO ETXEBIZITZA

188.000 € tik

AZKEN ETXEBIZITZAK!

12 ETXEBIZITZA
INGURUNE PAREGABEAN
Agerreazpi_n

- Etxebizitza argitsuak.
- Terraza handiak.
- Lorategidun behe solairuak.
- Primerako kalitateak.
- Diseinuzko materialak.

USURBILEN

VIVIENDAS LANIN S.L.
Lazkano Pasealekua, 1^o Behea
20009 Donostia
E.:contacto@viviendaslanin.com

943 46 88 60

www.viviendaslanin.com

Albiste iruditan

Torturaren aurkako murala Bizkarren

Gogoan izango duzue. Burlatan (Nafarroa) torturaren aurkako mural bat margotzeagatik zazpi lagun atxilotu zituen Polizia Nazionalak apirilaren 19an. Espainiako segurtasun indarrak iraintzea leporatu zieten lagun guztioi. Ordu batzuetara libre utzi zituzten. Gertaturikoa salatzen manifestazioa eta ekimen gehiago egin dira. Ordutik non nahi eta noiznahi agertzen eta ugaritzen joan dira, torturaren aurkako muralak. Modu honetan, errealitate hau salatu eta Burlatan gertatutakoarekiko elkartasuna adierazten ari dira Euskal Herri luze zabalean. Usurbilen ere margotu berri dute, Bizkarre auzunean. N-634 errepidetik argi ikus daiteke.



Burlatan gertatutakoarekiko elkartasuna adierazten ari dira Euskal Herri luze zabalean. Usurbilen ere margotu berri dute, Bizkarre auzunean.

Laburrean

Lorazain ofiziala eta behargin bat kontratatzeke deia

Apirilaren 26ko Tokiko Gobernu Batzordean hala erabakita, plazak betetzeko hautaketa prozesua arautuko duten oinarriak prestatzeko izapideei hasiera eman zaio. Maiatzaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen deialdia.

Larunbat honetan, 1966ko kinto afarria Olarrondon

Maiatzaren 14an bilduko dira Olarrondo jatetxean, 21:00etan. "Afalurretik Bordatxon elkartuko gara 19:00etan". Afari honetarako alde aurretik eman behar izena eta epea aurreko astean amaitu zen.

Larunbat honetan batuko dira 71ko kintoak Saizarren

Bazkalaurretik, Bordatxo tabernan elkartuko dira. Eguerdiko 12:00etan, eta ondoren Saizarren bazkalduko dute. Izena emateko zerrenda Txiriboga tabernan jarriko dute. Adi epearekin: maiatzaren 12a baino lehen apuntatu beharko da.

noaqua

Kultur Elkartea

Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil

943 360 321 /// elkarte@noaqua.eus /// www.noaqua.eus

Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:

Idoia Torregarai.

Aldizkari koordinatzailea:

Imanol Ubeda.

Idazkaria: Aizpea Aizpurua.

Publizitatea: Beatriz Alda,

publizitatea@noaqua.eus

Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,

erredakzioa@noaqua.eus:

Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Banaketa: Olatz Rezola, Ekhi

Arrieta.

Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,

Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria

Jesus Urbieta, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas,

Unai Agirre, Idoia Torregarai eta

Udarregi ikastola.

Tirada: 2.800 ale.

Lege-Gordailua: SS-668-96

ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu

Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



Luken Arkarazo

Ekinez egina

Ezina, bularrean gezia, itxuraz gerezia. Behin eta berriz, saiatuz jo zenuen harresia, ustearen anai etsia. Guztia dugula pentsa eta ezer ez izatearen gabezia. Gaizki ulertu genuen hiztegia. Harremanen zentzu iraulia, agian berezia, agian beroaldi baten frenesia. Iluntasunez izan zara hezia, patu hau duzu merezia, kontraesanen basoan, zuhaitzek estaltzen dute eguzkia. Solik bide zidor berrietatik, topatuko duzu egunsentia.

Zaila izaten da erroak ateratzea, moztea. Zaila garena aldatzea, irakatsi digutena ahaztea, ikusi eta barneratu duguna alboratu eta zerotik berriz garena erakitzen hastea. Ez naiz aditua feminismo kontuetan, baina argi dago, Euskal Herrian bes-

teak beste egiten ari diren lan intelektualak eragitea lortu duela. Gazteon bizitzetan eragitea. Heteropatriarkatutik eta heteropatriarkatuan hezitako neskatxa eta gizontxoak ikuspegiak irekitzen hasi gara, edo hobeki esanda, horretara behartu gaituzte. Bikote (eta botere) harremanez ari naiz, binomio tradizionala (heterosexuala ala homosexuala) ezbaian jartzeaz, askatasunaz. Eta bide horrek gure zutabeetan sortzen dituzten lurrikaretaz. Kontraesanetaz.

"Aske zara, aske naiz. Ez dauka gu ezer, lagunak gara, guztia dugu. Erromantikoa naiz, goxoa eta zaltzailea. Zu maite zaitut, bera maite dut, maite zaituztet. Larrua jo nion, zidan, genuen. Ez naiz jelsokorra, hori eraikitako sentipena da, artifiziala. Baina, eraiki daitezke

sentipenak? Burutik jota nago, zaude?". Harreman eredu tradizionaletik haratago doan pentsamendu edota esperientziarik izan baduzu, ziur gogoetarekin identifikatua sentitu zarela.

Iraultza globala da, gure buruaren zein inguratzen gaituen munduaren aurkakoa. Hasi lo aurretik gauero gurekiko dugun bakarriketatik, herriko txutxumutxu eta begiradak sentitzetik igaro, eta aitona amonei eman beharreko azalpena arte. Konplikatua da, antzak baitira gudu zelaiak. Sendoak eraikitako kanpo zein barneko harresiak. Hots, ez ahantzi ausardia dela haiek eraisteko arieterik boteretsuena.


Usurbilen bertan ordea, gazte-riaren artean, gai honen eta oroko-

rrean mugimendu feministak ordezkatzeko duenaren mesfidantza handia dago. Normala da, hein batean kolokan ipintzen baitu mundua ulertzeko dugun modua. Ondorioz, ezjakintasunetik, mespretxura jotzeko ohitura hartu dugu. Baina etxea gaizki eraikia dagoela frogatu duen arkitektoa deslegitimizatu beharrean, zergatik ez hasi eraikina zaharberritzen? Txikitik, gertutik, deitu bikote, lagun, kide, edota ezer ez (eta aldi berean dena) duzun pertsona horrekin duzun harremanetik.

Kontua ez da mutil edo neska. Kontua ez da bi, hiru edo zortzi izatea. Guzti hau ausardi kontua da. Izan ausart elkar eraldatzeko. Izan ausart elkar errespetatzeko. Ireki ikuspegiak, ezina, ekinez egiterik badago.

Aritz Gorriti | Idoia Torregarai | Maialen Unanue | Ilazki Gaintza | Luis Aranalde | **Luken Arkarazo** | Imanol Ubeda

Joseba Larratxeren komikia



Aginaga eta Txokoaldeko ur zikinak saneatzeko datarik ez

S ortzen ditugun ur zikin gehienak Oriara isuri ordez, urok Loiolako araztegiara bideratzen dituen kolektorea lanean jarri berri duten honetan, oraindik bada zereginik, Usurbilgo Udalak bezala Eguzki talde ekologistak gogorarazten duenez. Aginagan zein Txokoaldeko ur zikinrentzat oraindik konponbiderik ez baitago, lanean den tratamendu azpiegitura sare honetatik kanpo daude zonaldeok. Ur hauen saneamendua datarik gabe atzeratu dela salatu du Eguzki talde ekologistak.



Eguzki taldearen esanetan, "Eusko Jaurlaritzak ez du lan hauetarako sosik ipintzeko asmorik, denbora puska ederrean behintzat".

"Eusko Jaurlaritzak Aginagako eta Txokoaldeko saneamendua berriz ere atzeratu duela salatu nahi du Eguzkik, eta oraingoan datarik gabe atzeratu, gainera. Izan ere, Plan Hidrologiko berriak 2027ra arte programatu dituen lanen artean ez da agertzen. Memorian, berriz, bai; memorian oraindik egin gabe dauden beste hainbat saneamendu-proiektuekin batera aipatzen da, baina "erakunde arduradunen aurrekontu mugatuek" lanok 2027 baino lehen programatzea "zailtzen dutela" ohartarazita ("Programa de Medidas", 40. orrialdea). Alegia, Eusko Jaurlaritzak (Eusko Jaurlaritzak baita zati gehiena ordaindu behar duena) ez duela lan hauetarako sosik ipintzeko asmorik, denbora puska ederrean, behintzat",

EGUZKI TALDEA

Urteak joan dira, ordea, eta Aginagak saneamendurik gabe jarraitzen du. Eta ez hori bakarrik, baizik eta, esan bezala, Plan Hidrologiko berrian lan hauek edozein programaziotik kanpo utzi dituzte"

ohartarazi du.

Proiektu bat badago

Nahiz bazen proiektu bat aurreikusia, "hiru milioi euroko aurrekontua zuen. Hitzarmenaren arabera, Eusko Jaurlaritzak, Ura Agentziaren bidez,

%75 ordaintzeko konpromisoa hartu zuen eta Añarbeko Urek, berriz, %25. Urteak joan dira, ordea, eta Aginagak saneamendurik gabe jarraitzen du. Eta ez hori bakarrik, baizik eta, esan bezala, Plan Hidrologiko berrian lan hauek edozein programaziotik kanpo utzi dituzte".

Ondorioa argia da; 500 lagunena eta zenbait enpresen ur zikinek erriogan amaitzen segitzen dute. "Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuan" hain zuzen. Eta eremu horren helburu nagusietako batek betetzeke segitzen du, Eguzkitik gogora ekarri dutenez. "Hain zuzen, KBE honen helburu nagusietako bat uraren kalitateari eustea da eta 5. helburu operatiboan espresuki aipatzen da Aginagako saneamenduaren beharra", adierazi dute ohar bidez.

"Anderren familiaren izenean, bihotzez eskerrik asko"

Gertaera latza bizi izan zuten duela bi aste-buru Legazpiko jaietan. Indarkeria baliatu-



ta lapurreta egin zioten Ander Aranburu Leunda usurbildarrari. Larri zaurituta geratu zen, eta zoritxarrez, handik ordu batzuetara hil zen.

Senideen hitzak

Egun zailotan, Anderren sendiak biziki eskertu nahi du jaso duten babes eta elkartasuna: "Anderren familiaren izenean bihotzez eskerrik asko. Segurako neska koadrilari aurkitu zuten laguntza eskatu eta bere ondoan egon zirelako. Bizirik mantentzen saiatu ziren guztiei. Erasotzaileak atxilotzea posible egin zuten guztiei. Udaltzaingoari gu aurkitu arte etsi ez zutelako. Koldobikeri momenturo informatuta mantendu gintuelako. Legazpiko herriari eta bertara hurbildu zirenei, adierazitako elkartasun eta babesagatik. Usurbilgo herriari gure ondoan egoteagatik. Samina handia bada ere guztien babeseta eta indarra sentitzeak arnasa hartzen laguntzen digu. Berrito ere bihotzez eskerrik asko", adierazi du sare sozialetan idatzitako mezu bidez, Anderren familiak.

Negozioa hobetzeko aukera, doako tailerrean

Euskal Ganberek eta Eusko Jaurlaritzak merkatariei zuzendutako 45 tailer antolatu dituzte maiatza eta ekaina parterako, Euskal Merkataritzaren 18. Topaketaren baitan. Sektorea profesionalizatzea helburu izango duten tailerretako bat Usurbilen egingo da, maiatzaren 31n, 14:30-16:30 artean, Potxoenan; "Berrestreinatuz zure denda! Irabazi gehiago, negozioaz gozatuz"

izenekoa. Gipuzkoako Bazkondeak bideratuko duen tailerrean, "oso modu ikusgarri eta praktikoa, saltokietan hobetzeko alderdiak irakatsiko ditugu; erakusleioa, espazioaren antolaketa, produktuaren aurkezpena, irudia, mostradorea, finantza kudeaketa... berehala aplikatu daitezkeenak". Doako saio honetan izen emateko eta informazio gehiagorako: camaragipuzkoa.com

Lanbide Eskolako azken bisita gidatua

Datorren ikasturtean Lanbide Eskolan ikasten hasi nahi dutenentzako hitzordu aproposa; asteotarako antolatu dituzten hirugarren eta azken atelek irakatsiko dituzte hiru eguneko jardunaldia egingo da larunbat honetan, maiatzaren 14an, 11:00-13:00 artean. Instalakuntzak ezagutzeko bisita gidatua egin eta hezkuntza proiektua aurkeztuko da. Erdi eta goi mailako ziklook es-

kaintzen dituzte Zubietan: administrazioa, elektrizitate-elektronika, fabrikazio mekanikoa, energia eta ura.

Aurrematrikulazioa ekainaren 6tik 17ra izango da.

Informazio gehiago:

lhusurbil.eus
eskola@lhusurbil.eus
943 364 600

NOAUA! aldizkaria, auzolanean

SORTZAILEEK ARGI ZUTEN: “HERRI OSOAN ZABALDU BEHAR ZEN, KOBRATU GABE”

Boligrafo eta paperak hartu eta kalera irteteko bere burua eskaini zutenen artean zen. Urduri baina ilusioz betea. 1996ko maiatzeko aste amaiera bat zen. Ez edozein igande, usurbildarren urteko jai egun estimatuen baitzen. Sagardo Egunaren hamabosgarren edizioa ospatzen ari zen herria. Usurbildar hainbat sagardoa zerbitzatzeko, jendetza edari preziatuaren zaporea dastatzen. Eta jendarte multzo zabalean, zenbait lagun, erditzear zen proiektu berri baterako bazkideak biltzen. Tartean, ondoko irudian duzuen Ainhoa Azpiroz.

Urte hartako herriko jaietan etxeko postontzietan jasotzen hasiko ginen hamaboskari berria bazetorrela, egitasmoa aurkezten eta hura sostengatzeko abian zen bazkideak kanpainarako laguntza biltzen aritu zen Azpiroz eta taldetxo bat. 20 urte betetzen dituen NOAUA! jendarteratzen aritu ziren egun hartan. Bazkide egin nahi zutenen datuak jasotzen eta pegatinak banatzen.

Ikusmina bazela antzeman zuten. Kanean eginiko lanketa haren ondoren, eguerdi hartan bertan, proiektu hau hasieratik babestu eta lagundu duen Usurbilgo Udalean bildu ziren lortutako bazkideak kontatzeko. Ezbairik gabe, balantze positiboa. “Gure enbidoari erantzunez, dezentek erabaki zuten bazkide egitea. Jendeak oso ondo erantzun zuen eta horrek are eta gehiago animatu gintuen”, oroitzen du Azpiroz.

Proiektu ireki eta euskalduna

Goiz hartan atera zuten, gainera, Potxoenea inguruan, maiatzaren 22an berri nahi dugun NOAUA!kideen lehen argazkia. Bera ageri da erretratu hartan.



Jende askok hartu zuen parte NOAUA!ren sorreran. Tartean, Ainhoa Azpirozek. Bere adierazpenak batu ditugu.

AINHOA AZPIROZ

“Gure enbidoari erantzunez, dezentek erabaki zuten bazkide egitea. Jendeak oso ondo erantzun zuen eta horrek are eta gehiago animatu gintuen”

Argazki hura eskutan, asteotan lagun gehiagorekin egingo dugun moduan, NOAUA! izeneko proiektu berri haren hastapenei buruz dituen oroitzapenak partekatzeke tartea hartu du Ainhoa.

Hitz egiten hasi ahala datozkio burura duela 20 urteko hainbat bizipen. Esaterako, aldizkariaren izena hautatzeko, tabernetan zerrendak jarri eta nola bildu ziren jendeak idatzitako proposamenak eta nola aukeratu zen haietatik “Noaua!” izena. Edota proiektu berriak izango zituen ezaugarriak; besteak beste, iraunkorra eta profesionala izan behar

zuela, hamabostean behin argitaratuko zela, osorik euskaraz, jende askotarikoak bilduko zuten proiektu ireki eta zabala izango zela, parte-hartzailea, auzoak presente izango zituen, edota etxe guztietako postontzietan banatuko zutela. Beste udalerritatu batzuetan formula desberdinak baliatu zituzten arren, Usurbil-en argi zuten, Ainhoak gogorarazi digunez, NOAUA! “herri osora zabaldu behar zen, kobratu gabe”.

Mugimendu geldiezina Correoseko egoitzan

Herritik herriarentzat lan egin nahi zutela azpimarratzen du Ainhoak, herria konprometituz eta inplikaturik, egitasmo honetara lotuz; herritarrak bazkide eginez, komertzioak publikitate jartzera gonbidatuz, edota herriko talde eta elkarteekin hitzarmenak sinatuz.

Duela 20 urte, ez zen WhatsApp, Internet, sare sozial eta emailik. Plazan egiten ziren harremanak, eta NOAUA!ren

Kale Nagusiko egoitzan, garai bateko Correosen. “Auzoetako kronistek eskuz idatzita ekartzen ziguten testua. Edo bestela, egoitzan bertan kontatzen ziguten istorioa edo kronikan argitaratu nahi zutena. Guk grabatu egiten genuen eta gero idatzi”. Bertan zuten postontzian, “beti begiratu behar genuen, beti zegoen zerbait”. Mugimendu handia izaten zen barruan.

“Jende pila bat biltzen ginen”

Noiznahi izaten zituzten gaiak proposatu edo zorian agurrerako argazkiekin zetozen herritarren bisitak. Kazetariak, argazkilariak, publikitate kontratatzen zutenak, diseinatzen zutenak, zuzentzaileak, maketatzailak, kontabilitateaz edota bazkideak sustatzeaz arduratzen zirenak, banatzaileak, kronista bihurtu ziren auzoetako bizilagunak... “Mahaiaren bueltan jende pila bat biltzen ginen”, oroitzen du.

abiaturiko proiektua

“Hauek hor osasuna utziko dute”

Ez zuten egungo baliabide eta teknologia berririk. Txandaka baliatu behar izaten zuten ordenagailu handi bat. Beste bat, txikiagoa, kontabilitatea kudeatzen zutenentzat. Eskuz moldatu behar bestela. Eta askotan presaren presaz. Aldizkaria inprentara heltzeko unea gerturatzeko zihoan neurrian, ezin iritsi ibiltzen ziren sarritan. “Ordu txikiak arte, eta erlojuz kontra aritzen ginen lanean. Gure amek esaten zuten, hauek hor osasuna utziko dute”, dio Ainhoak irribarre artean.

Aldizkaria ia prest izaten

bazuten ere, inprentara bidali aurreko azken orduetan beti “izaten zen zerbait”. Askotan argazkiren baten falta. Eta lanak ematen zizkien. “Hasi-eran argazkiak eskuz errebelatzen genituen”.

“Ze azkarra den orain argazki kamera digitalekin!”

Gerora, Lasarte-Oriako Etxarri argazki dendara joan-etorri ugari egin behar izaten zuten. “Lasartera joan, argazki roiloa utzi, Usurbila itzuli, ordubete pasa eta berriro Lasarte-Oriara argazki bila. Gero, aukeratu eta eskaneatu egin behar ziren. Ze erraza



NOAUA! aldizkariaren lehen azala, 1996ko ekainaren 22koa.

eta azkarra den orain argazki digitalekin!”.

“NOAUA!kide sentitzeko” hitzordua

NOAUA!ko lehen kazetari taldeko kidea izan zen Ainhoa. Gero publizitate sailean jardun zuen. Urte askoz aritu da gerora, kolaboratzaile gisa. 20 urte pasa diren arren, ederki oroitzen du oraindik garai hartan zegoen urduritasun eta ilusioa. “Baina batez ere, gogoan dut, jende askok isilpean, tarte librean borondate osoz egin zuen lan itzela”.



Duela 20 urteko argazkia errepikatuzera goaz, maiatzaren 22an igandea 11:00etan.

Ainhoek bizi izandako Sagardo Egun hartatik 20 urte igaro dira. Egun hartan NOAUA!rekin bat egin zutenak, baita bi hamarkadotan laguntza eta babesa adierazi duten lagun guztiak biltzeko aitzakia bikaina izango

da maiatzaren 22an, goizeko 11:00etan Potxoenea ondoan. Talde argazkirako jarri dugun hitzorduan.

“NOAUA!kide sentitzeko eta beste kide batzuekin elkartzeko

hitzordu ederra” Ainhoa Azpironen esanetan. Sagardo Eguneko ospakizunetan murgildu aurretik animatu guztiok beraz. Hitzordua duzue Potxoenea ondoan.

Joseba Larratxeren komikia

Aurreko astean iragarri genuen bezala, Joseba Larratxe komikilaria NOAUA!ren 20. urteurrenarekin bat egin du. Urtea amaitu arte, orriotan izango da hamabostean behin. Lehen tira komikoa zenbaki honetan bertan plazaratu du (4. orrialdean duzue ikusgai).

Hurrengo umore dosia, hortaz, Sagardo Egunaren ondoren izango da: maiatzaren 27ko NOAUA!n.

Harrera ona izan du “Klik batean”, Ion Markel Saez de

Urabainen txokoak

Hitzez ez ezik, irudiz ere osatzen da NOAUA! aste-karia. Eta irudiari garrantzia gehiago eman asmoz, *Klik batean* atala abiarazi genuen aurreko astean. Komikiarena bezala, atal hau ere 20. urteurrenaren bueltan abiarazi dugu. Aurreko astean Andatza Egunaren isla izan bazen, oraingoan, John Lydonen bisitaren berri eman digu (ikus 18. or).

Komikia hamabostean behin izango dugu orriotan; “Klik batean” atala ordea, astero.

Bazkideei eta

NOAUA! zaleei deia

Maiatzaren 22an igandea, Potxoenean batuko gara 20. urteurreneko argazkia ateratzeko asmoz. Zuen zain izango gara!

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL


LOGOPEDIA

Haurrak / Nerabeak / Helduak
TERAPIA MIOFUNZIONALA



Aurreko hitzordua: 635 701 374

- Arnasketa arazoak, disglusia, degluzioa
- Ahotsaren tratamenduak: disfonia funtzionala simple eta konplexua, disfemiak...
- Hizkuntza eta ulermenaren zailtasunak: dislexia, disortografia, diskalkulia, TDA-H, disartriak...



Nafarroa hegoaldeko kontserbena, Errigoraren kanpaina berria

Ottarrak izan genituen udazkenean, oliba olioia neguan, eta asteotan, Nafarroa hegoaldean ekoiztutako kontserba-loteak eskuratzeko aukera izango da, Errigorak abian jarriko duen kanpainari esker.

“2015-16 ikasturtearen azken txanpan sartuta, berriro ere bagatoz plazara eskutik eskura proposamenaren kontserba-loteen kanpainarekin”, adierazi dute. Oraingoan 7 lote izango dira aukeran, “denak ere kalitate bikaineakoak, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan”, aurreratu dutenez.

Aurrekoetan bezala, NOAUA! Kultur Elkartek bat egingo du, Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena eta euskalgintza sustatzea helburu duen elkartasun ekimen honekin. Honako loteok eskatu ahalko dituzue, ostegun honetatik aurrera, kultur elkarteko egoitzan:

■ Zainzuriak (“El Escolar” eta “Iturri”). 425 ml-ko 8-12 aledun 12 ontzi (ekoizle bakoitzeko seinena): 41 euro.

■ Potxak (“La Churta” eta “Maria Jesus”). 720 ml-ko 6 ontzi ekologiko eta 6 konbentzional: 25 euro.

■ Orburuak (“Ebron” eta “Maria Jesus”). 720 ml-ko 12 ontzi (ekoizle bakoitzeko seinena): 44 euro.

■ Barazki-menestra (“Almanaque” eta “Maria Jesus”). 720 ml-ko 12 ontzi (ekoizle bakoitzeko seinena): 39 euro.



Aurreko kanpainetan bezala, eskaerak NOAUAren bitartez bideratuko dira.

AUKERA UGARI

Oraingoan zazpi lote izango dira aukeran, “denak ere kalitate bikaineakoak, euskaraz etiketatuta eta ekoizlearen jatorrizko prezioan”

■ Pikillo piperrak (“El Escolar” eta “Iturri”). 425 ml-ko 12 ontzi (ekoizle bakoitzeko seinena): 32 euro.

■ Kremak (“Pedro Luis”). Hiruna ontzi barazki, kalabaza, brokoli eta porru krema ekologikoak: 24 euro.

■ Tomate frijitua (“Pedro Luis”). 370 ml-ko 12 ontzi: 15 euro.

Egutegia

■ Maiatzak 12-24: eskaerak egiteko epea NOAUA!ko egoitzan.

■ Ekainak 6-8: ekoizleek loteak banatuko dituzte.

■ Ekainak 7-14: loteak kontsu-

mitzaileek jasoko dituzte.

Olioia, 5.000 familietan

Errigorarena hazten doan egitasmoa dugu. “Olioaren kanpaina arrakastatsua dugu aurrekari. Herriz herri kontsumitzaile arduratsuen komunitateak osatzera gindoazela esan genuen otsailean, eta martxoko zenbakiek gure apustua berretsi zuten: 5.000 familiek erantzun zioten urte osorako olioia eskatzeko gonbitari”, berri eman dute Errigoratik.

Ekoizleen euskalduntzea helburu

Ekoizle eta kontsumitzaile arduratsuen arteko zubi lanak eraikitzea bultzatzen dute, Nafarroa hegoaldeko tokiko produktuen ekoizpena laguntzea eta bertako euskalgintza suspertzea. Kanpaina berri honetan hain zuzen, ekoizleen euskalduntzean jarri nahi dute arreta.

Bokashi izeneko ongarrria egiteko tailerra Gaztetxean

Maiatzaren 21ean, goizeko 11:00etan hasita Usurbilgo Gaztetxean. Doako saioa izango da. “Bertan errautsa, ximorra, harri hautsa, hezur hautsa, lurra, orbela... dituen ongarririk fermentatu bat egiten ikasiko dugu, gari edo arroz zaiarekin nahastuz fermentatzen den produktua da. Lorezaintzan, gure baratzen eta lurretan erabili ahal izango dugu”, berri eman dute antolatzaileek. Ohartarazi dutenez, “baten batek ongarririk hau etxera eraman nahi izanez gero jarri harremanetan gurekin”. Honatx deitu beharreko telefono zenbakia: 608 566 683.

“Ez dadila haria eten”

Ekimen gehiago ere iragarri dituzte Gaztetxetik. “Gaztetxeak desalojo arriskuen aurrean gauzak egiten jarraituko du, beharrezkoa baita espazio irekiak egotea, autogestioan oinarritzen direnak. Ez dadila haria eten!”, adierazi dute ohar bidez.

Aurrematrikulazioa Institutuan

2016-17 ikasturtera begira dira Lasarte-Usurbil Institutuan. DBH eta Batxilerra eskaintzen duten ikastetxean zabalik izango dute aurrematrikulazio epea, maiatzaren 12ra arte. Argibide gehiagorako: lasarte-bhi@instilasarte.net 943 372 852/943 372 277

txirriStra
TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

• komertzial instalazioak • beira bikoitza
• segurtasun beirak • dutxa-itxiturak eta irristailuak
• ispiluak • barandak • kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45




1966-2016

MAIATZAK 22

Udarregiren omenez

gehigarri berezia



Udarregi oroitzuz, garai berrien egarriz

EUSKAL KULTURA MODERNOA LORATZEN HASI ZEN GARAIAN IPINI ZEN ESKULTURA

1966ko maiatzaren 22an, Udarregiren omenezko eskultura inauguratu zen Usurbilen. Remigio Mendibururen obrak 50 urte beteko ditu aurten. Hari horri tiraka iritsi gara ondorio horretara: Udarregiren omenaldia bor-borka zen mugimendu baten ispilu izan zen. Euskal kultura modernoa abian zen.



1966ko maiatzaren 22an egin zen Remigio Mendibururen eskulturaren inaugurazio ekitaldia.

Udarregiren aldeko omenaldia Artze anaiek antolatu zutela zioen Garak duela hilabete. Joxan Artzek berak eman dizkigu azalpenak: “Jexux oso gaztea zen orduan. Felix Aizpurua eta ni aritu ginen antolaketa lanetan”. Eta 1966ko maiatzaren 22ko omenaldia ez zen “eskulturaren inaugurazio horretara mugatu. Ekintza gehiago egin ziren”. Jardunaldiak aste osoan egin zirela argitu digu. “Tartean, Ionescoren obra bat eskaini genuen euskaraz”, Jarrai taldekoek taularatu zutela uste du Usurbilgo poetak. “Baina ekitaldi gehiago ere izan ziren. Beste bi edo hiru antzezlan. Eta Kantu Txapelketa ere egin zen. Gogoan dut Pelix Sarasolak hartu zuela parte”. Hori du gogoan Artzek.

Ekintza bete aste

Alegia: Remigio Mendibururen eskultura inauguratzeaz aparte, bestelako ekintzak ere prestatu zituztela. Felix Aizpurua eta Joxan Artze izan ziren jardunaldi horien sustatzaile nagusiak.

JOXAN ARTZE

Aste osoko egitaraua prestatu zuten. “Euskal Jaiak egun bakarrekoak izaten ziren. Dimentsio honetako ekitaldirik ez zen ordura arte izan”

siak. Eta hasieran ez zuten laguntza handirik izan. “Hauek erotuta daude, hori pentsatuko zuten”, Artzek adierazi digunez. Baina jardunaldiak iritsi ahala, “herritar gehiago animatu ziren antolaketa lanetara”.

Frontoiari estalkia ipini zioten propio

1966an, frontoiak ez zuen sabairik. “Baina ekitaldi horietarako estalkia ipini zen”, Artzek gogora ekarri duenez.

Udarregiren aldeko jardunaldiei neurria hartzeko, orduko Euskal Jaiak ekarri dizkigu gogora Artzek: “Euskal Jaiak

egun bakarrekoak izaten ziren. Dimentsio honetako ekitaldirik ez zen ordura arte izan”.

Lehortearen erdian, oasia

Bada buruan behin eta berri bueltaka dugun galdera. Zergatik 1966an? Urteurren baten aitzakian akaso? Udarregi 1829an jaio zen. Eta hil, 1895an hil zen. Artzek adierazi digunez, kultur ekitaldiak antolatzeke eragozpen handiak zeuden garai horretan. Atera kontuak, “orduko lehortea nolakoa zen”. Jardunaldiei beste izaera bat eman nahi zioten, baina garai hartan zentsura gaintitza ez zen lan erraza. Horregatik, Udarregiri omenaldia aitzakia harturik, antzerkiak eta bestelako jarduerak antolatu ahal izan zituzten. Ionesco euskaraz taularatu, adibidez. Gaur normalena dirudiena, sekulako balentria behar zuen garai hartan.

Beste herri batzuetan antzeko jardunaldiak antolatu ziren ondoren

Udarregiren omenezko jardunaldi haiek ez ziren ohar-kabea. Usurbilgoari jarraituz, “Zaldibian antzeko antolatu zuten Iztueta idazlearen omenez”, eta Artzek berak lagundu ziren antolaketa lanetan. “Mendi tontor guztietan sua piztu genuen, eta egunsentiarekin batera txalaparta jo genuen”. Azpeitian ere antzeko jardunaldiak egin zituzten. Antxieta gogoan hartuz, jardunaldi batzuk antolatu zituzten.

Datorren igandean ekitaldi bat egingo da Udarregiren omenezko eskulturaren aurrean

Gauzak zer diren. Egutegiaren kapritxoak, datorren igandean, maiatzak 22, bat etorriko dira Udarregiren omenezko eskulturaren urteurrena eta Sagardo Eguna. Hori dela eta, Sagardo Eguna hasi baino lehen, goizeko 10:30ean, ekitaldi bat egingo da Udarregiren aldeko eskulturaren aurrean.

■ Maiatzak 22 igandea.

■ 10:30ean Matistanea etxe parean, Udarregiren omenezko eskulturaren aurrean.

“Baserritik kanpo bazen euskaldunik agertzeko”

Folklore kutsuko jai eredutik haratago, bestelako jarduerak antolatzeke modu bakarra hori izan zuten. Udarregi omenduz. “Baserritik kanpo ere, bazela euskaldunik agertzeko”, Joxan Artzek aditzera eman digunez.

Udarregiren omenezko jardunaldi haien bueltan, esate baterako, Rikardo Arregiren hitzaldia antolatu zuten. “Euskal unibertsitarien izenean, hitzaldi bat ematera gonbidatu genuen”.

Andoaingo gazteak etorri handia zuen. Garaiko Europako mugimendu politiko eta filosofiko nagusiak sakon eza gutzen zituen. Zentsura garai ilun hartan, azterketa soziologiko zein ideologiko argiak

eskaintzen zituen. Eta Arregik Usurbilen eskaini zuen hitzaldi hartan Artzek eman dizkigun gakoak ageri dira. Merezki du hitzaldia osorik irakurtzeak. Al-dizkari honetan bertan, 16-17 orrietan topatuko duzue.

“Beste herrientzat erakustaldi ederra”

HALAXE ZIOEN ZERUKO ARGIA-K 1966KO MAIATZEAN ARGITARATU ZUEN ALBISTEAN

Artzek aurreratu digun bezalaxe, Udarregiri eginiko omenaldiak asetebe iraun zuen eta kultur jarduera ugari egin ziren. 1966ko maiatzeko Zeruko Argia aldizkarian xehetasun ugari topatu ditugu. Inñaki izeneko batek sinatutako albistea bere horretan jaso dugu. Ondo azaltzen duelako antolatzaileen xedea eta egitaraua bera. Argitaratu zen idazkera errespetatu dugu.

“Errian bizi izandu zan Juan Jose Alkain “Udarregi” bertsolaria dala ta jai ikusgarriak antolatu dituzte Usurbil’ko errian.

Zenbait erritan peztak antolatu bear dituzten garaian nun bizi diran aztu egiten dirala dirudi; oieri batez ere, erakustaldi ederra ematen die Usurbil’ko erriak. Lau egun iraungo dituzten jai hauetan, omenaldi egokia emango zaio erriko bertsolariari. Umeentzako idaz leiaketa, antzezlanak, abeslariak eta nola ez bertsolariak bakoitzak egun berezia dute maiatzaren 19, 20, 21 eta 22’an.

Udarregi bizi zan garaian ez zan orrelakorik gertatuko bainan gaurko Usurbil’tar gazteen artean euskera ez da nai aña aldiz erabiltzen, gazteleraren arra sartu da erri onetan ere, orregaitik oso egoki antolatua izan da umeen idaz leiaketa. Txapelketa au 7’tik 14 urte bitarterañoeko erriko aur guzientzat antolatu da. Ez al da utsean galduko orain ematen duten pauso au, ta beste erri askotan bezala, euskerak malda gora ekiña izango al da Usurbil’ko errian ere. Ikas-tetxea daukaten monjak, dute onetan ze ikusi aundia; ze on egin dezaketan ikusiaz pixka bat arduratuko al dira egun auetan.

Iru egun bitarte, inguruko antzerki taldeak Usurbil’en aurkituko dira bakoitzak bere almena agertu naiean. Sei talde aleginduko dira Usurbil’ko antzerki “ostroa” beaizentzat izan



Kartelean lau lerro luze, lau motz eta bederatzigarren luze bat ageri dira, Udarregiren omenez, eta bederatz puntuko bertsu neurriari keinu eginez. Joxan Artzek eman digu kartelaren azalpena. Esku-orria ere argitaratu zuten.

dadin. Aurkeztuko dituzten antzerkiak mota guzietakoak dira. ‘Gai dagonaren indarra’, ‘Ezer ez da pesta’, ‘Goi maitasun’ eta ‘Neronek galdu nuen nere alaba’ euskaldunen artean eta ‘Gizona ta kidea’ ta ‘Maizter-berria’ euskeratuak. Usurbil’tarrak beste inork orain arte eduki ez duen zoria dute, ludiko antzerki egilerik aitatuenak sortutako antzerkiak ikusi al izatekoa.

Adierazgarri benetan bertsolari baten omenaldian Duerren-tmart (ostiralean) eta Ionesco (larunbatean) agertzea. Ze esango ote luke Udarregi jaunak burua jasoko balu? Ziurki poztu egingo litzake bere errian giro berri bat sumatzean.

Ostegunean antzerkiak ondoren abeslari berri talde bat beren txapelketan saiatuko dira (...).

Larunbat gabeen, bertsolarik agertuko diote beren agurra. Une ederra izango da au, Xal-

bador, Mattin, Lazkao Txiki, Agirre, Azpillaga, Lopategi, Udarregi irakasleari bertsuak eskainiaz (...).

Igandean borobilduko dira pesta guziak, leendabizi meza nagusia, goizeko amarretan. Erriko udaletxeak, Usurbil’ko erriak eta leku guzietatik inguratuko diranak, Juan Mari Lekuona, apaiz jaunaren, bertsolari itzak entzun al izango dituzte.

Ondoren Mendiburu eskultorea Udarregiri eskeiñiko dion irudiaren bistaratzea, ta zenbait artistak une onetan agertuko diote beren omenaldia (...).

Meza ondoren baita ere, aurretioko egunetan irabazle izendatzen diranei sariak emango zaizkie.

Eguardian, nola ez mai baten inguruan arkituko dira, lagun ar-

teko bazkari bat ospatu nai duten guziak. Bazkari alairik baldin bada, au izango da, bai orixe!”.

Zeruko Argia. Mikelek sinatua, 1966ko maiatzean.

Xabier Lete, Lourdes Iriondo eta Benito Lertxundi kantari

“‘Biurria’,

Lourdes Iriondo, Paxo Olazabal, Xabier Lete, Juan Mingo, Joxe Anton Billar, Pelix Sarasola eta Benito Lertxundi aritu ziren Abesti Txapelketan. “Denak lagun badira ere (Ez dok amairu-ri lotuak) egun orretarako bakoitza bere aldetik gogoz prestatzen ari dira”, zioen Zeruko Argia-ko artikulua.



“Zuek bidea erakutsi dezute, orain besteak jarraituko al dute?”

“Kontuan izan dezagun Usurbil biztanlez erri txiki bat dela eta garbi ikusiko degu beren erakusbidea; gaurko egunez euskal erri batean aaztu ezin ditezken gauzak agertuaz, abesti berriak ta bertsolariak Alzaga ta Ionesco, umeen idaz leiaketa ta Mendiburu’ren eskultura. Bai inork merezi baditu Usurbil’ko udaletxeak gure txalorik beroenak merezi ditu, berdin antolaketa auetan buru belarri ibili diran gazteak. Zuek bidea erakutsi dezute, orain besteak jarraituko al dute?”, halaxe bukatzen da Zeruko Argia-ko albistea.

2.018 pezetako laguntza

Udal artxiboetan egon gara begira, eta Udarregiri eskainitako omenaldian Usurbilgo Udalak 2.018 pezetarekin lagundu zuen.

Inaugurazioa, argazkitan jasoa

KUTXA FOTOTEKAN, ARTURO DELGADOREN ARGAZKI UGARI DAUDE JASOAK

Argazkiak denbora geldiarazten duela diote. Instant jakin bat betikotu. Eskuratu berri dugun albumari esker, 50 urte atzera egiteko aukera izan dugu. Argazkietan herritar ugari ageri dira, eta kultura munduko artista asko.

Iñaki Almandoz NOAUA!ko bazkideak eman zigun argazki hauen berri. Bere bitartez iritsi gara Kutxa Fototekan gordetzen den ondare grafiko honetara. Iñaki Almandozekin batera, Maria Angeles Arruti, Eukene Kamino eta Joxan Artzeren bitartez ezagutu ditugu argazkietan diren herritar batzuk.



Argazkiak Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

1966ko maiatzaren 22an, Udarreregiren omenezko eskultura inauguratu zeneko argazkia. Ezkerretik hasita: Karlos Portoles, Mikel Urkia, Maria Pilar Pagola, Pako Udabe (jezarria), Iñaki Urkia, Jesus Portoles eta Maria Dolores Udabe.



Mikrofonoaren aurrean, Inazio Eizmendi Manterola "Basarri" bertsoaria. Aurkezle lanetan aritu zen egun hartan. Eta erdian, gorbatarekin, Jose Irasuegi Beloki, orduko alkatea. Ezkerreko argazkian Lourdes Iriondo kantaria; mikrofonoaren ondoan, zuriz, Maribel Irureta. Mikroaren atzean Jabier Arruti. Basarriren atzean, goian, Joxe Leon Arriaga. Eta bi argazkitan eskubitarra, Iñaki Almandoz eta Juan Mari Zubimendi ageri dira. Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.



Ezkerreko argazkian, Udarreregiren senitartekoak izan daitezkeenak. Aldamenean, Jexux Mari Zulaika, Tomas Rodriguez eta Joxe Antonio Jaka sumatu ditu Maria Angeles Arrutik. Eskubiko argazkian, Tomas edo Alejandro Maiz, Oteizaren atzean eta Mendibururen eskulturari begira. Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

Puntako bertsolariak aritu ziren

Bertsolariaren omenezko jaialdian, bertsolariak ezin hutsik egin. Udarregiren omenezko egun haietan, puntako bertsolari asko bertaratu ziren.

Larunbatean, plazan

“Bertsolari bilera” gisa zetorren kartelean. 1966ko maiatzaren 21ean Xalbador, Mattin, Lazkao Txiki, Agirre, Azpillaga eta Lopategi aritu ziren Usurbilen. Entzuteko modukoa izango zen.

Igandean, eskulturaren inaugurazioan

Biharamunean, eskulturaren inaugurazioan, Xalbador, Mugartegi, Lazkao Txiki, Basarri (aurkezle lanetan) eta Uztapide aritu ziren. Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa Fototeka.



Udarregiren omenezko eskultura inauguratu zenean Xalbador, Mugartegi, Lazkao Txiki eta Basarri bertsolariak aritu ziren kantuan. Argazkiaren eskubitara, Joxean Artze idazlea, Joan Joxe Kamino eta Uztapide bertsolaria.

‘Joxe Txiki’, Udarregiren eskribaua



Ezkerreko koadroko gizona Joxe Aranburu Mendio-la da, ‘Joxe Txiki’ ezizenez ezaguna herrian. Bere semeari ere ‘Joxe Txiki’ deituko zioten. 1966ko maiatzaren 22an, argazkiko koadroa Matistanean ipini zuten. Udarregiren omenezko eskulturaren inaugurazio ekitaldirako jarri zuten propio.



Eskubiko argazkian erreparatzen baduzue, Matistanean ikusten da koadro bat eskegita (erdialdean, ezkerretara, balkoiaren azpian). ‘Joxe Txiki’-ren koadroa da, hain zuzen. Udarregik ez zekien idazten, eta Joxe Txiki idazten zizkion paperean. Argazkiak: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

Udarregiren omenezko sariketa



Udarregiren omenez, idazlan lehiaketa antolatu zen. Nesken artean, Maria Angeles Arruti eta Maria Isabel Sagarna nagusitu ziren. Eta mutilen artean, Jabier Arruti. Sari banaketa 1966ko maiatzaren 22an egin zen, eskulturaren inaugurazio ekitaldian. Maria Isabel Sagarna falta da argazkian. Argazkian Arruti anai-arrebak ageri dira eta, eskubitara, Maribel Irureta. Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

Udarregik ez zekien idazten, baina bertsoak memorizatzeko teknika propioa garatu zuen

Udarregik ez zekien idazten, ez zekien irakurtzen. Baina burura etortzen zitzaizkion bertsoak memorizatzeko teknika propioa garatu zuen.

Teila puska batekin, Artikulaaundiko hormetan arrastoa egiten zuen. Marra moduko batzuk. “Gero Usurbil’ko organista zan Jose Txiki (Jose Aranburu) etortzen zitzaion. Ta an, arrastoaren aurrean, Udarregik somatutako bertsoak esaten asten zan, ta Joxe Txiki eskribitzen. Gero, onek betetako papera inprentara eramaten zuten”, hala kontatu zion Mateo Landa Alkainek, Udarregiren billobak, Antonio Zavala ikertzaile eta idazleari. Azalpen hau *Udarregi bertsolaria* (Auspoa, 1966) liburuan dator jaso.

Hor ere aipatzen da Joxe Txiki joaterik ez zuenean, Udarregi bera jaisten zela Usurbila, “eskuan makil bat artuta, eta paretako arrastoak makillan ekartzen zituan. Ta makillari begira esaten zizkion bertsoak Joxe Txikiri”.

Kanturako lagun asko zituen inguruan

Josu Tellabidek, *Usurbilgo Baserriak* eta *Baserritarrak*

“Gure kolejiyuak, sagardotegiak”

Udarregik behin Pello Errotari botatako bertsoa.

Asiera eman du
Pello Errotariak
errespuesta orain
Juan Joxe Udarregiak.
Batek ainbat deretxo
daukagu guk biyak;
gure kolejiyuak
sagardotegiak.



Ez da Udarregiren irudirik. Hau bere iskribuetako bat da, Artikulaaundiko horma batetik igeltoan hartua. Argazkia: *Usurbil 1371-1971* liburua.

UDARREGIREN BERTSOAK

Antonio Zavalak ahozko zein idatzizko ondarea batzen lan itzela egin zuen. ‘Udarregi bertsolaria’ (Auspoa, 1966) liburua altxor bat da

liburu gogoangarrian, bertsolaritza ere erraparatu zuen. Hauxe da berak batu zuen informazioa: “Aginagako Aldapa baserriko Joxe Mari Izagirrek diosku mendi guzti honetan bertsolari eta “sasi bertsolari” deituak asko zirela, bata besteari kantuan ibiltzen baitziren inguru hauetan.

Usurbilgo Felix Aizpuruak Sorabillako Federiko Otegi bildutakoa (*Udarregi bertsolaria* liburua)

Xenpelarrek:

Nolabait pasatu degu
oraindañokua,
ez egunero janaz
ogiya naikua;
astian aurreratu
ezin den jaikua,
partitzen lanik gabe
sobratutakua...
Zer moduz bizi zera
Udarregikua?

Udarregik:

Zuk ogiya diyozu
ta nik talua're
pozik jango luketenak
etxian badaude;
askotan baba zarra
oliorik gabe,
babarrunak aitu ziran,
artoik eztakat batere...
igasi juanak dira
arratoiak ere!

Artikulaaundi baserriko bertsolaria

Juan Joxe Alkain Iruretagoiena, ‘Udarregi’ bertsolaria Aiako Uzaetaburu baserrian jaio zen, 1829an. Gaztea zela, familia Usurbilgo Udarregi baserrira etorri zen. Handik urte batzuetara, berriz, Artikulaaundira aldatu ziren. Juan Joxe, Maria Bautista Astiazaran Arsuaga errezildarrarekin ezkondu zen, eta Artikulaaundin hiru alaba izan zituzten: Mikaela Ignazia, Josefa Ignazia eta Juana Joxepa. “Udarregi”, gizon ospetsu eta maitatua, oso ezaguna izan zen Beterri guztian.

1895ean hil zen. Ez da bere argazkirik, ezta irudirik ere gordetzen.

Artikulaaundin, Udarregiren omenez Txirritak bertso hau kantatu ei zuen:

*Usurbilko semia
Udarregi zana,
Amaika egi eder
Munduban esana;
Kantatubagatikan
Kolpian dozena,
Beñere etzan aitzen
Aren almazena
Gu ez gerade ezer,
Ura zan gizona.*

Udarregi asko ibili zen herriz herri bertsoan

Nekazaria ogibidez, Udarregi asko ibili zen herriz herri bertsoan. Donostiako San Tomas jaian estimazio handia zuen. Inguruko euskal festa gehienetan ere ibiltzen zen. Hala dator jaso orduko argitalpenetan.

“Denboraren iragaitearen historia” islatzen du eskulturak

Xabier Saenz de Gorbea adituak Remigio Mendiburu Hondarribiako eskultorearen lan bilduma katalogatu zuen, Gipuzkoako Foru Aldundiaren enkarguz. Aurreko legealdian egin zen, eta katalogoa argitaratu gabe dago oraindik. Ez dago kontsultatzeko moduan, baina hala ere NOAA!k Udarregiren omenezko eskulturararen fitxa teknikoak aztertzeak aukera izan du. Donostiako Koldo Mitxelenaren adeitasunari esker jaso ditugu Saenz de Gorbea adituaren apunteak.

Fitxa teknikoak datu zehatz hauek jasotzen ditu:

- Izenburua: Udarregiri omenaldia.
- Urtea: 1966.
- Teknika: eskultura.
- Materiala: Brontzea.



Remigio Mendiburuaren ideia
Xanti Zumetak gauzatu zuen.
Zumeta arduratu zen fundizio-lanaz.

- Altuera: 20 zm.
- Luzera: 18 zm.
- Zabalera: 36,5 zm.
- Oharra: Oskol modukoa, eskulturararen oinarrian.
- Análisi artistikoa: Oin altu baten gainean, prismazko bloke txiki bat, zeinaren forma

itxia modu informalean egituratuta dagoen. Egituraren eta kanpoko geruzen iragazkortasunaren arteko harremanean, denboraren iragaitearen historia pilatzen doa.

Luzuriagaenean, Xanti Zumetak ondua

Arturo Delgadoren argazkien peskizan, Joxan Artzerekin harremanetan jarri eta kontu polit bat azaldu digu: eskulturararen ideia Remigio Mendiburuena izanik ere, eskultura bera nork egin ote zuen? Xanti Zumetak Luzuriagan egiten zuen lan garai hartan, eta berak ondu ote zuen Mendiburuaren ideia. Zumetaren etxe-koekin harremanetan jarri eta Artzek arrazoi: Xanti Zumetak berak egin zuen fundizio-lana.

Ez Dok Amairuren logoa ere Remigio Mendiburuena da

Gaur margolari eta eskultore taldea eta Ez dok Amairu mugimendua garai paretsuan abiatu ziren, eta antzeko helburuekin. Loturarik ere bada: Jorge Oteizak Gaur taldeko sustatzaileak ipini zion izena kantarien mugimenduari: Ez Dok Amairu. Eta Remigio Mendiburuk (hau ere Gaur taldeko kide) Ez Dok Amairuren logotipoa egin zuen.



Ez Dok Amairu taldekoen disko denetan agertzen zen Remigio Mendiburuk eginiko logotipoa.

Gaur taldea eta Ez Dok Amairu, euskal kultura modernoaren ernamuinak



Remigio Mendiburu (gorbatarekin) eta beste bi lagun, Udarregiren omenezko eskulturararen ondoan, Jorge Oteizaren azalpenei adi.
Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

Euskal kultura osoa biziberritzeko ahaleaginean, gakoa izan zen Jorge Oteizaren *Quosque tandem* (1963) liburua. Eragin handia izan zuen orduko artisten artean. Banakako lanetik haratago, talde-lanean aritze-

ko joera aldarrikatzen zen lan horretan. Gerora, Euskal Arte Garaikidearen Eskola, Gaur taldea, Argia dantza taldea, Jarrai antzerki taldea edota Ez Dok Amairu taldea izango dira joera horren lekuko.



Eskubitara Jorge Oteiza, orrialde bat sinatzen eta bere ondoan ageri den gizona Jose Antonio Sistiaga margolaria. Biak, Gaur taldeko kideak.
Argazkia: Arturo Delgado, Kutxa-Fototeka.

1966ko maiatzaren 22an, Udarregiren omenez antolatu zen ekitaldian Gaur taldeko kide batzuk hurreratu ziren: Jose Antonio Sistiaga eta Jorge Oteiza. Garai horretan osatu zen, hain zuzen, Gaur kolektiboa. Bertako

kide ziren Remigio Mendiburu edota Jose Luis Zumeta.

Gaur taldea, egunotan San Telmon
1966-2016 Gaur konstelazioak erakusketa igandera arte egongo da ikusgai Donostiako museon.

Rikardo Arregiren hitzaldi gogoangarria

ESKULTURA INAUGURATU ZEN EGUNEAN ESAN ZITUENAK GAURKOTASUN HANDIA DUTE

1966ko maiatzaren 22ak askorako eman zuen. Esan dugu: Gaur taldeko artistak, puntako bertsolariak eta inguruko euskaltzale asko batu ziren Usurbilen. Inaugurazioaren ondoren, bazkari bat izan zen Usurbilen. Bazkalondoan Rikardo Arregik hitza hartu zuen. 27 urte zituen eta ordurako euskararen eta euskal kulturaren aldeko lanean burubelarri murgilduta zebilen. Frankismo garaian, ausardia handiz gazte hark azaldu zituen egoerek eta ideiek gaurkotasun handia dute 50 urteren ondoren.



Udarregiren omenezko eskultura inauguratu zen egunean, bazkari bat egin zen Usurbilen. Bazkalostean egin zuen hitzaldi haren audioa grabatua izan zen (Irudia: Rikardo Arregi Kazetaritza Saria).

“Udarregiren omenez egin den eskulturaren aurrean Euskal Herriko artistek egin behar zioten omen berezia. Nik gaur, orain, une honetan, euskal gazteriaren izenean eta euskal idazle berrien izenean Udarregiri omena egin nahi nioke.

Ez zaitezte beldurtu, laburra izango naiz. Baina egia esateko beldurra ematen dit une honetan, bazkari on bat egin ondorenean esango ditudanak esatea. Baina gaurko gazteriak, gazte guztiak bezala, gauzak benetan esan nahi baldin baditu... badirudi Usurbilek bere semearen jaia ospatu duelako denok alai eta pozean izan behar genukeela.

Baina, zoritxarrez, ez daukagu gaur egunean guk euskaldunok Xenpelarrek bere bertsoan zionez, “gu bai gera Euskal Herria”. Ez dugu pozik eta alai izateko eskubiderik, hiltzorian dagoen pertsonak, hiltzorian dagoen gizonak ez du behin ere eskubiderik, ez du behin ere pozik eta alai izateko momenturik.

RIKARDO ARREGI (1966)

**“Inork ere ukatu ezin
lezakeena da estatu baten
bitartez bakarrik
konponduko direla eta
estatu baten bitartez
bakarrik salbatuko dela
Euskal Herria
eta euskara”**

Horregatik gaur egunean martxa honetan jarraitzekotan, hemendik bi belaunaldietara, hemendik bi generazioetara, ez dira Euskal Herrian izango euskaraz hitz egingo duen Euskal Herrian Udarregiren bertsoak irakurriko dituztenik. Martxa honetan, ez baita izango hemendik urte batzuetara, gauzak aldatzen ez badira behinik behin, euskaraz hitz egingo duenik.

Eta gu herri bezala hiltzekotan garen ezker, ez dut uste alai eta pozik izateko eskubiderik daukagunik. Heriotzako orduak beti izaten dira tristeak eta gaur egunean Euskal Herria, euskaldun guztiok osatzen dugun Euskal Herria, momentu triste hori

bizitzen ari da: hil edo bizi.

Eta horregatik nik pozik nahi nuke momentu honetan alaitasunezko eta pozezko hitzak adieraztea baina gure burua engainatu nahi ez baldin badugu, argi eta garbi gure errealitateari aurpegi eman behar diogu. Eta gure gaurko errealitatea hiltzeko zorian gaudela da.

Atzo zioten bertsolariak eta gaur ere zerbait entzun dugu, eta maiz gure artean entzuten dugu gurasoak, fraideak, mojak, euskaraz egiten baldin badute... euskara biziko dela. Baina ez gaitzezen engainatu, hori ez da egia. Bestekorik ez dagoen bitartean hori gertatuko da, baina hori ez da egia. Egun hauetan entzun ditugun abestiak, egun hauetan ikusi ditugun antzerkiak, egunero radioetan, egunero telebistan, egunero gure egunerokoetan, egunero gure zineetan [euskara erabiltzen ez bada] alferrikakoa izango da gurasoei bere semei euskaraz erakustea eskatzea. Egunero gure zineak, gure periodikoak, hitz

batean esateko, gure gizartea euskaldun izatera iristen ez den bitartean alferrikakoa da pentsatzea gure hizkuntza zaharra eta gauza guzti horiek borondate on huts batez biziko direla. Ez. Gure problemak behar bezala sendatu nahi baldin baditugu, argi eta garbi eman diezaiozun aurpegi gure problemari eta gure errealitateari.

Eta gure errealitatea da gaurko gure Euskal Herri hau ez dela euskalduna, ez baitago euskaldunen mendean, ez baitago euskaldunen eskuetan. Eta alferrikakoa da gurasoei eskatzea bere semei euskaraz erakustea, borondate onez ez da euskara salbatuko. Euskara salbatuko da Euskal Herriko zineak, Euskal Herriko legeak, Euskal Herriko gizartea euskaldunon eskuetan egongo den orduan. Gainontzekoak gezurrezkoak dira, ez dira benetako problemak. Horretara iristen ez garen bitartean, ez dezagun uste izan borondate hutsez, borondate onez bakarrik salbatuko dela euskara. Horregatik gure errealitateari aurpegi eman behar diogu eta horregatik ez gaitzezen lainoetan ibili.

Estatu batek bakarrik salbatu lezake Euskal Herriaren salbazioa. Beste diskusio bat izango da, beste eztabaida bat izango da estatu hori zer estatu izango den eta nolako estatua. Baina inork ere, bere buruarekin jator baldin bada, eta lehengoari eutsia ez baldin badago, inork ere ukatu ezin lezakeena da estatu baten bitartez bakarrik konponduko direla eta estatu baten bitartez bakarrik salbatuko dela Euskal Herria eta euskara (...).

“Gaur egunean, Euskal Herrian zenbait eta zenbait jende injustiziaren mendean bizi dira”

(...) Gaur Usurbilen lehenagoko, antzinako, gure aurreko bertsolari bat ospatzen genuen gaur Usurbilen: Udarregi. Baina Udarregiren omenez altxa da, jaso da, Usurbilgo enparantzan eskultura berri bat. Eta horrek zer esan nahi du? Euskal Herria lehenari begira ez dela salbatuko, gaurkoari eta biharrari begira.

Horregatik hasieran esaten nuen bezala, iruditzen zait ez dela hau momentua, ez dela hau unea pozik eta alai izatekoa. Baizik eta gure problemei behar bezala aurpegia ematekoa. Gaur egunean Euskal Herriak ez dauka arrazoi bat ere, dirua besterik, alai izateko. Gaur egunean, Euskal Herrian zenbait eta zenbait jende injustiziaren mendean bizi dira. Gaur egunean Euskal Herrian zenbat eta zenbat gizon gure osotasunera, gure zabalkundera iristeko milaka eragozpen eta oztopo aurkitzen ditugu. Une honetan nola izango gara ba alai? Ez gaitezen bizi lehengoan pentsatzen. Lehengoak bere balioa badu baina etorkizunari begira, itxaropenari begira eta horregatik iruditzen zait niri euskararen salbazioa ez dela etorriko jakintsu batzuk euskaraz asko estudiatzen dutelako, baizik eta euskara injustiziaren kontrako hizkuntza izatea iristen den garaian.

Horregatik iruditzen zait niri gaur Usurbilgo enparantzan ikusi duguna lehengo euskaldun jator baten omenez jaso den eskultura berri hori. Hori etorkizunerako dei bat da, euskaldunok lehengo ez dugu ahaztu behar baina gaurkoari eta geroari begira bizi behar dugu. Ez dugu tradizioari eta



1969an hil zen auto istripuz. 27 urte besterik ez zituen.

RIKARDO ARREGI (1966)

“Nik nire adiskideen izenean, euskal idazle berrien izenean eta zenbait euskal gazteen izenean Udarregiren omenera juntatzen gara, batzen gara, bat egiten dugu Udarregiren omenaldiarekin, baina ez lehengo bizi nahian baizik eta berria ekarri nahian. Besterik ez, gora Euskal Herria!”

lege zaharrari begira egon behar, Euskal Herria oraindik jasotzeko gizarte berri bat da. Euskal Herria ez da berpiztu behar den gizarte bat, oraindik jasotzeko dagoen gizarte bat da. Eta gizarte hori jasotzeko ez dezagun gure burua engainatu, ez dezagun uste bertso batzuenatik, ohitura batzuenatik eta sentimendu batzuenatik salbatuko dugula. Ez, Euskal Herria borroka eginik, denok gure gizatasuna osatzeko moduan altxa behar dugun Euskal Herri hori izan behar dugu.

Eta horregatik eskultura horrek horixe bera esan nahi du, gaur

egunean badira zenbait euskal gazte, badira zenbait euskal gaztedikoak borrokan dabiltzanak Euskal Herri berri hori jaso nahian. Eta zenbat aldiz, benetan aitortzen dizuet, itxaropena galtzen dugu ea iritsiko ote den Euskal Herri berri horren garaia.

Baina gaur artistak zorionez, pintore eta eskultore horiek, adierazten digu badela posibilitate bat, badela ahalmen bat euskal gizarte bat, euskal pentsamendu bat, euskal arte berri bat sortzekoa.

Udarregi baliozko izan zen bere garaian, bere garaiko problemak bizi izan zituelako. Eta horregatik gaurko artista berri horiek [esaten] digute: Euskaldunak begira dezagun aurrera, ez gaitezen lehengo ametsetan bizi. Euskal Herria oraindik egin gabe dago, Euskal Herria guk bakarrik borrokarekin osatu dezakegu. Eta ez sentimenduetan eta konplazio txarretan biziak, baizik eta jatorki beti uste izan dugu euskaldunak jatorrak izan garela, eta benetako gizonak. Askotan pentsatu behar dugu hori ez dela egia.

Horregatik bukatzera noa, eta nik nire adiskideen izenean, euskal idazle berrien izenean eta zenbait euskal gazteen izenean Udarregiren omenera juntatzen gara, batzen gara, bat egiten dugu Udarregiren omenaldiarekin, baina ez lehengo bizi nahian baizik eta berria ekarri nahian. Besterik ez, gora Euskal Herria!”

* Usurbilen, 1966ko maiatzaren 22an, Udarregiren eskultura inauguratu eta gero egin zen bazkarian esandakoak.

Alfabetatze kanpainaren bultzatzailea

Rikardo Arregi 1969ko uztailaren 10ean hil zen auto istripuz. Ramon Saizarbitoria idazlearekin batera Euskaltzaindiaren bilera batera zihoan. 27 urte besterik ez zituen Arregik.

Korrikaren lehen edizioetan oso gogoan izan zuten

1942an sortu zen Andoainen. Filosofia ikasketak egin eta berehala hasi zen idazten, Zeruko Argia eta Jakin aldizkarietan laguntzen. Nazioarteko politikaz ere kezkatua, artikulua ugari idatzi zituen, batik bat Zeruko Argia-ko “Herriak eta Gizonak” sailean. 1960ko hamarkadan proposamena egin zion Euskaltzaindiari alfabetatze saila sor zezan, jendeak euskaraz irakurri eta idazten ikastea xede nagusi baitzuten.

Alfabetatze kanpainaren bultzatzaile nagusi, alor horren egituraketan jardun zuen buru-belarri. Zalantzarik gabe gero AEK izango zeneren aitetariko bat, lehen bi Korriketan oso gogoan izan zuten Rikardo Arregi.

Hitzaldiaren audioa, Youtuben entzungai

Orriotan jaso dugun hitzaldi honen audioa zirrargarria da eta Youtuben duzue entzungai, Andoaingo Aiurri aldizkariaren kanalean.

Hauxe duzue audioaren bideoari dagokion QR kodea.





A hand holding a dark pen is pointing towards a sign. The sign features the word 'higain' in a light blue, lowercase, sans-serif font. A small red dot is positioned above the letter 'i'. Below the word, there is some smaller, less legible text. The background is a light-colored wall with a window or glass partition visible on the left side.

higain

Klik! batean

Izar bat gurean

Punk mugimenduaren ikur nagusietakoa izateak hori du. Berak nahi gabe ere, izar bat dela zale askorentzat. John Lydon Usurbilen izan zen aurreko astean (Johnny Rotten ezizena zuen Sex Pistols garaian). Public Image Ltd taldearekin bira hasi berri du Europan barrena, eta prestaketa lanak Haritz Harreguyren estudioan egin zituzten. Urdaiagan egingo dago argazkia, Higain estudioan.

Argazkia: Ion Markel

GuraSOS: “Erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu”

Zubietan eraiki asmo duten erraustegiak euren eta seme-alaben osasunean izango duen eraginagatik kezkatuta, Gipuzkoako hainbat guraso bildu eta GuraSOS mugimendua sortu dute.

Larunbatean aurkeztu zuten, leporaino bete zen Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean. Ideologia eta mundu ezberdinetako kideen elkarlanetik sortu dute bilgunea, “eta etorkizunean kide guztion elkargune izan nahi du. Elkartzen gaituena, gure txiki eta gaztetxoan osasuna babestea baita, ezberdintasun guztien gaineratik”.

Eskaera argi batekin plazaratu dira jendartera; erraustegia bertan behera utzi dezatela nahi dute. “Guk ez dugu interes politiko edo ekonomikorik, bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu: ez dugu beren osasuna arriskuan jartzerik onartzen. Horregatik, arazoari emango zaion irtenbideak, gaur egun gipuzkoarron eta bereziki gure seme-alaben



Larunbatean egin zuten GuraSOS taldearen aurkezpen ekitaldia Lasarte-Orian. Usurbildar guraso asko daude taldean.

GURASOS TALDEA

“Guk ez dugu interes politiko edo ekonomikorik, bakar-bakarrik gure seme-alabak babestu nahi ditugu”

osasunerako berme nahikorik ematen ez duenez, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu”, adierazi dute.

Erraustegia inork ez duela nahi diote, errealitate hau

ukaezina dela eta GuraSOS mugimenduak duen kezka oinarria eta funtsa duela, “osasuna arriskuan dagoenaren aitortza inplizitu bat badagoela” alegia. Horren adierazgarri, berriki Foru Aldundiak Biodonostiarekin sinatu duen hitzarmena. Akordio honen baitan, erraustegiaren eragina ezagutzeko azterketa epidemiologikoak egin asmo dituzte. “Azterketa honen beharrik frogatzen du arrisku baten aurrean gaudela, eta gizakien osasunarengan izango duen eragina norainokoa izan daite-

keen esperimentatzeko gu eta gure haurrak erabiltzeko asmoa dute”, azpimarratu dute.

Osasuna eta Erraustegia Ikerketa Taldeko medikuek aurkezturiko ebidentzia zientifikoak ere ahotan hartu zituzten. Plazaratu dituzten datuek “beldurtzen gaituzte: azaldu dituzten datu eta ondorioek; erraustegia eta minbiziaren artean zer-nolako harremana dagoen diotenak, besteak beste. Medikuek argi diote: fetoak, haurrak eta gaztetxoak dira, gaixo eta adinekoekin batera, erraustegien efektuen eragin nabarmenenak jasaten dituztenak”.

Eraikiko balitz, erraustegiak 30 kilometroko diametroan eragin-eremua izango omen luke. Eta gu guztiok eremu horren baitan gaude. Hala dio, zeinek eta Eusko Jaurlaritzak. “Eta eragin-eremu honetan 200 hezkuntza-zentro daude, gurea eta zuena tartean. Donostiako ospitale-gunea eta Onkologikoa ere “eragin-eremu” honen barnean aurkitzen dira”, ohartarazi dute.

GuraSOS-en manifestua: “Kezkatuta gaude eta ezinegonik”

Gure txikitxo maitea, Ama, Aita, Amona, Aitona, Izeba, Osaba naiz.

Begira, ez zaitut larritu nahi, baina, entzun mesedez, arretaz, esango dizudanak merezi du-eta.

Hortxe, Zubietan bertan, Errealak entrenatzen duen lekutik oso gertu, Erraustegia egiteko asmoa dute, bertan zaborra eta hainbat hondakin erretzeko. Bertatik aterako den kea arriskutsua izan daiteke osasunerako. Bai, halaxe da, igarri duzu, ezta? Kezkatuta nago, bai, eta batik bat zuengan, haurrangan, oraindik hazten,

garatzen eta osatzen ari zarenengan sor ditzakeen eraginengatik.

Kezkatuta nago eta ezinegonik:

Erraustegiaren kokalekua bizi garen lekutik oso hurbil dagoelako (15-20 kilometroko eremuaren barruan).

Erraustegiaren kokalekutik hurbil dauden lurretan landatutako barazkiak eta fruituak jaten dituzulako, edo eta, belardi horietan elikatzen diren abereen haragia eta beste-lakoak jaten dituzulako.

Horren ondorioz kutsatuko den itsasoan bainatuko zare-lako.

Edota, nahiz eta gure bizilekutik urrun egon, ez nukelako nahi inoren haurrek ondorio kaltegarri horiek jasaterik. Nire haurrentzat nahi ez dudana, inoren haurrentzat ere nahi ez dudalako.

Horregatik, lehenbailehen, zerbait egin behar dudala pentsatu dut: arrisku horretatik babesteko zaitut, maitea, zin dagizut!! Ez dut onartuko, inondik inora ere, haurren osasuna arriskuan jartzerik! Ez nioke, inolaz ere, nire buruari barkatuko, nire esku dagoen guztia egiten ez badut, gutxi bada ere.

Erabaki dut beste guraso, ai-

tona-amona eta senideekin batera bilduko naizela eta denok batera, elkarrekin, lan egingo dugula, erraustegiaren arriskua gaineratik kentzeko.

Zaude ziur: begiratu bi begietara, sinetsiezadazu, ez dizut hutsik egingo! Erraustegiaren proiektua geldiarazten saiatuko naiz!

Badakit, gure hondakinen arazoari beste irtenbide bat bilatuko diogula denen artean, posible delako, gizarteak eta gure ordezkariak horretan buru-belarri jarri nahi badute behintzat, gure osasuna eta ingurumena arriskuan jarri gabe!

Manifestuaren aldeko sinadura bilketa hasi dute



GuraSOS taldearen manifestua sinatzeko aukera dago gurasos.org web orrian.

Aurkeztu berri duten GuraSOS mugimenduak bi lan ildo nagusi ditu. Batetik, informazioa jaso eta beste gurasoekin partekatu nahi dute. Horretarako harremanetan jarri dira mediku eta zientzialariekin, baita "era honetako azpiegituren arriskuari aurre egin dioten beste guraso batzuekin" ere.

Ahalegin horretatik dator, maiatzaren 21erako Hernaniko Orona-Ideo-n antolatzen ari diren dibulgazio ekitaldia. "Bertan, erraustegiek gure osasunean sor ditzaketen eraginei buruzko informazioa (objektiboa eta frogatua) jasotzeko aukera eskaintzea da gure helburua, zientzialari eta medikuen eskutik, eta nola ez, bizipen pertsonalei ere tartetxo bat eskainiz", iragarri dute.

Ekimen honetan inplikatu nahi dituzte baita, Gipuzkoako eskola, hezkuntza-eta osasun komunitateak ere. "Horregatik, besteak beste, familiez gain,

GURASOSEN ESKAERA

"Osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako, eta prebentzio eta babes printzipioetan oinarrituz, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu"

gonbidapen zuzena egingo diegu "eragin-eremuan" dauden ikastetxeetatik hasi eta Gipuzkoako ikastetxe guztietik, eta baita osasunaren inguruan zeresana duten profesionaleri ere".

Atxikimendu bilketa

Manifestu bat ere aurkeztu zuten agerraldian zehar, "gure kezka eta nahiak azalduz". Guraso eta seme-alaben osasunean erraustegiak izango lukeen eraginarekiko kezka agertzen dute bertan, eta hondakinen arazoa konpontzeko "gizarte eta haren ordezkariak

ados jar daitezela" eskatzen dute. Beti ere, "inoren osasuna arriskuan jarri gabe". Manifestu honen aldeko atxikimendu bilketa ere abiatu dute jada. "Sinatzera gonbidatzen zaitugu! Zuen (zure) laguntza behar dugu!", adierazi dute. Jasotako atxikimendu guztiak gero, Gipuzkoako Ahalduen Nagusi Markel Olanori helarazteko asmoa du GuraSOS mugimenduak, "zera eskatzeko: osasuna guztiz bermatuta ez dagoelako, eta prebentzio eta babes printzipioetan oinarrituz, erraustegiaren asmoa alde batera uztea eskatzen dugu!". Manifestua gurasos.org atarian sartuta sinatu dezakezue.

GuraSOS mugimenduak eta eskuartearen dituzten egitasmoen informazio gehiago jasotzeko aukera duzue bideo-tatik:

gurasos.org
facebook.com/gurasos
Twitter: @tgurasos

Datozen deialdiak

Maiatzak 13, ostirala

■ Maiatzaren 29ko giza-kate-rako izen ematea:
17:00-19:00 Zubietako Kaxka-pe egoitzan.

19:00etan hasita, Usurbilgo Sutegi ondoan.

Oharra: izen emateko aukera NOAA!ko egoitzan eta noiz-nahi erraustuez.org atarian.

Maiatzak 14, larunbata

■ Maiatzaren 29ko giza-kate-rako izen ematea:

12:30tik aurrera, Sutegi ondoan jarriko duten mahaian.

17:00-19:00 Zubietako Kaxka-pen jarriko den mahaian.

Maiatzak 15, igandea

■ Maiatzaren 29ko giza-kate-rako izen ematea:

12:00-14:00 Zubietako Kaxka-pen jarriko den mahaian.

Maiatzak 20, ostirala

■ 18:00 Erraustegiak osasunerako dituen arriskuez ohar-tarazteko jardunaldia Potxoenean: minbizia bizi izan duten Usurbilgo bi lagunaren lekuko-tzak, eta egiten ari diren lanke-taren aurkezpena. Saioa irekia. Baina bereziki minbizia izan edota dutenei, senideei edota osasun alorreko profesionaleri zuzendua.

Maiatzak 21, larunbata

■ Maiatzaren 20tik 22ra, proiektu suntsitzaileen (tar-tean erraustegiaren) aurkako Txirrinka bizikleta martxa.

■ 11:30 Hitzaldia Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean: Valdemingomezeko (Madril) erraustegiaren aurka, gaixo talde batek aurkeztu eta tramitera onartu duten salaketaren harira, hango bizipenen berri emango dute, salaketa aurkeztu duen lagunetako batek eta taldeko bozeramaileak.

Maiatzak 29, igandea

■ 11:30 Osasunaren aldeko eta erraustegiaren aurkako giza-katea Donostian (aurretik izena eman behar da).

Lanbide heziketa, euskararen bidean

Koldo Ulanga Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxeko irakaslea da. Eta lantoki duen Usurbilgo ikastetxean bertan kokatzen da Laneki, Euskadiko lanbide heziketa ikastetxeetan euskararen alde lanean dabilen elkarte. Garrantzia handikoa da, gaur egun Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Lanbide Heziketako ikastetxe publikoak (Ikaslan) eta kontzertatuak (Hutel) bere baitan biltzen dituelako.

Koldo Ulanga andoaindarra Usurbilgo Lanbide Heziketa ikastetxe publikoan euskara batzordeko dinamizatzailea da. Berarekin izandako solasaldian, hasteko eta behin euskararen aldeko egitasmoetan talde lanak duen garrantzia nabarmendu nahi du: “Funtsezkoa da irakasleen, irakasle ez diren langileen eta ikasleen inplikazioa. Denon parte hartzerik gabe, jai dugu”.



Koldo Ulanga Usurbilgo Lanbide Eskolako euskara batzordeko kidea.



Jokin Egurbide La Salle Berrozpe ikastetxeko irakaslea.

Lanpres gida, martxan

Lanbide Heziketako ikastetxeak euskararen bidean garapen handia izan du, behar eta zailtasun beretsuak dituzten beste ikastetxe askok bezalaxe. Horiek guztiak Laneki elkarteko kide dira, behar handiei erantzuteko sortu zena: “Bere garaian lanbide heziketa euskaraz eskaintzeko zeuden hutsuneak osatzeko sortu zen. Nabarmenena, ikas-materiala. Zorionez, sektore publiko eta pribatuko ikastetxeak elkartu gara. Euskara ez da gure artean bereizteko erabili behar den arma bat, baizik eta denon artean pauso txikiak emanez normalkuntzan aurrera egin genezan. Euskara gu guztiok batzen gaituen faktorea da”. Ikasleen praktikaldia euskaraz bideratzea izan da Lanekiren erronkatarikoa. Berriki, behar hori asetzeko Lanpres izeneko gida argitaratu dute.

Gidak zehazten duena betetzeko eragile guztiek parte hartu behar dute: alde batetik, praktikaldian dagoen ikaslea eta bere ikastetxeko tutorea, lan praktiken koordinatzailea eta euskara batzordeko koordinatzailea. Beste aldetik, enpresako hezitzailea. Gidari jarraiki, praktikaldiaren jarraipen zehatza egiten da, ebaluazioa eta guzti. Gidak izan duen

“Erakunde guztiak norabide berean jartzen ari gara, eta horrek etorkizuneko egitasmoetan garrantzia handia izango du”

abiapuntuak garrantzia berezia du Ulangarentzat: “Aurkezpen ekitaldia Euskaldunan egin zen eta bertan izan ziren Cristina Uriarte Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua, Patxi Baztarrrika Hizkuntza Politikarako sailburu-ordea, hiru Foru Aldundietako euskara zuzendariak, Lanbide Heziketako burua eta baita hainbat enpresari ere. Denen beharra dugu, botere publikoena eta enpresa pribatue-na”. Buruntzaldean urrats bat aurrerago doaz. Praktikaldia egingo duen ikaslea, ikastetxeko tutorea eta enpresa, hirurak, murgildu dituzte egitasmoan, jarraipena eta baliabideak eskainiz, lantokiko prestakuntza hori euskaraz burutu dadin. Aurten bi ikasle ari dira egitasmo horretan, Mendiola eta Euskabea enpresetan praktikaldia eginez.

Etekin handiko zikloak

Andoaingo La Salle Berrozpe ikastetxe kontzertatua “ETHAZI Etekin Handiko Zikloak” heziketa ekimen berritzaile batetan burubelarri dabil, zeinean eus-


karazko ikasleak onuradun bilaka daitezkeen.

Taldeak osatzeko irizpideetako bat: hizkuntza

Jokin Egurbide irakasleak xehetasunez azaltzen du egitasmoa: “Ikasleei ez diegu temarioa banatzen. Arazoak dira mahai gainean jartzen zaizkionak, eta ikasleek arazo horiei irtenbidea emateko beharrak identifikatu behar dituzte. Behar horiek menderatzeko ikasketa batzuk egin behar dituzte, eta beraz formakuntza beharren arabera lantzen da. Talde lanean egiten da hori guztia. Ikasturte honetan taldeak egiteko garaian irizpideen artean hizkuntza ipini dugu. Beraz, gela berean bost euskaldun topatuz gero, bost horiek talde berean egongo dira. Hartara, ikasturte osoan euren hizkuntza euskara izango da. Talde horren funtzionamendua, beraz, D ereduakoa da. Gela osoa kontutan hartuta, demagun 23 ikasle euskaldun daudela eta beste 2 erdaldun. Bi horiekin talde bat osatuko dugu. Horien funtzionamendua A ereduakoa litzateke, eta gainerako guztia D ereduakoa”.

Denborarekin, ETHAZI Euskadi osoko lanbide heziketan txertatuko den sistema izango da. Ikasleen euskarazko trebakuntza bermatzeko abantaila izango da.


HIZKUNTZ EREDUAK ZIKLOZ ZIKLO



DBH

2015-2016 IKASTURTEA


A ereduak	B ereduak	D ereduak
%0,0	%5,80	%94,20



BATXILERGOA

2015-2016 IKASTURTEA


A ereduak	B ereduak	D ereduak
%7,20	%5,40	%87,40



LANBIDE HEZIKETA ERDI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA

A ereduak	B ereduak	D ereduak
%37,80	%31,40	%30,80



LANBIDE HEZIKETA GOI MAILAKO ZIKLOAK

2015-2016 IKASTURTEA

A ereduak	B ereduak	D ereduak
%45,40	%20,40	%34,20



2016 / 2017

11 aukera, 11 Lan

Lanbide Heziketan ERE D eredua

Ziklo AUKERA zabala duzu Buruntzaldean eta inguruko eskualdeetan:

- ADMINISTRAZIO ETA FINANTZAK
 - SISTEMA ELEKTROTEKNIKOAK ETA AUTOMATIZATUAK
 - FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
 - GIZARTERATZEA
 - BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
 - ESTETIKA ETA EDERGINTZA
-eta askoz ere ziklo gehiago

www.ikaslan.net (ikastetxe publikoak)
www.hetel.org (ikastetxe pribatuak)

Asko duzu IRABAZTEKO:

- Ikasketak euskaraz jarraitzeko aukera duzu.
- Prestakuntza osatuagoa jasoko duzu.
- Herri honetako bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan lan egiteko gaitasuna izango duzu.
- Ikasketak euskaraz eginez gero, euskararen jakite-mailaren baliokidetzak ziurtatuko dituzu, azterketarik egin gabe:
 - erdi mailako zikloetan: B-1
 - goi-mailakoetan: B-2



Andoain, Astigarraga, Hernani,
Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo
Udaletako Euskarako Batzordeak

www.buruntzaldea.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SALA

Txioak entzunez gozatzeko parada

MIKEL OLANO, TXORIETAN ADITUAREN SAIOA, IGANDEAN SAIZAR SAGARDOTEGIAN

Udaberri betean, mendira joan eta txoriak ikusi nahi izateko joera bada. Baina txioak entzunez askoz gehiago ikasi eta gozatu dezakegu. Horretara dator San Ixidro Egunez, Mikel Olano basozaina eta hegaztietan aditu eta zaletua. Txorien kantuei buruzko argibideak eskaini, baina batez ere, urte garai honetan etxe ondoan izan ohi dugun soinu bandaren aberastasun eta balioraz jabetuaraztera. Goiz pasa ederra egiteko aukera izango dugu. NOAA! K.E.-k antolatutako hitzordua, igande goizeko 10:00etan Saizar Sagardotegian.

Basozaina zara, aspaldikoa duzu hegaztiekiko zaletasuna.

Mikel Olano: Txikitatik izan dut hegaztien zaletasun hori, aspalditik baita ere Arantzadin ere aritzen naiz hegaztiek. Bizi guztia hegaztiei lotua, bai lana bai afizioa. Konturatzen nintzen hegaztien behaketan, jende gehienak funtzionatzen zuela bistarekin. Nik eguneroko lanean belarriekin funtzionatzen dut. Hor bada jendeak ez dakien mundu bat, soinuarena. Hegaztien informazioaren %90a entzumenak ematen digu.

Zein da igandeko saioaren helburua?

Helburua ez da jendeak txorien kantuak ezagutzeko, geldirik jarri, soinuak entzuten egon eta inguruan soinu piloa dagoela konturatzea baizik. Jendea harritu egiten da, sekula ez delako jarri soinuak entzuten. Bioaniztasuna etxe ondoan dugu. Etxe ondoan daukaguna jendeari zer den erakusten saiatzen naiz. Gauza bat errespetatu edo maitatzeko, aurrez ezagutu beharra dago.

Ekitaldia bitan zatituko duzu; proiektzioa, eta entzumeneko saioa izango da?

Politik izaten da, bat batean



Mikel Olano hegaztietan aditu eta zaletua da. Igandean, Saizarren hitzaldia eman ondoren, txoriak entzuteko joango dira.

MIKEL OLANO

“Etxe ondoan daukaguna jendeari zer den erakusten saiatzen naiz. Gauza bat errespetatu edo maitatzeko, aurrez ezagutu beharra dago”

kanpora joan, isildu eta soinuak entzuten jartzea, baina oso harrigarria. Horregatik, alde aurretik soinuen mundua azalduko dugu, noiz entzuten diren txori gehiago kantatzen, zergatik abesten duten... Gero txori kantuak jartzen ditut. Jendeak orduan belarria prest jartzen du. Berotuta dagoela, orduan kanpora ateratzen gara. Helburua ez da etorri eta txorien kantuak ikastea, dagoen soinuen mundu bat badela jabetzea baizik.

Zer ezagutu dezakegu txorien soinuen bidez?

Udaberrian, bereziki apirilean, txori arrek bere kabia non egin nahi duten adierazi, bere lurraldea aldarrikatu eta emeei deitzeko kantu territorialak deiturikoak abesten dituzte. Hori kantu dotoreak, politik izaten dira. Zer informazio ematen duten? Habitat bakoitzean zer txori mota dagoen. Egunsentian parke, belaze, edo baso batera gerturatu. Lurrera begira jarri, eta entzun zer ari den abesten.

Sentsazio hori ikaragarria da.

Ikerketek diote hainbat espezie babestu beharrean daudela, ezta?

Bai. Espezie bakoitza habitat mota bati lotua dago. Baso sailak nabarmen ugaritzen ari dira, eta aldiz, landazabala murrizten ari da, nekazaritza jarduera desagertzen ari den neurrian. Ondorioz, garai bateko belardi edo zelaia eraldatzen ari dira. Eraldatze hori naturala da, ez da txarra berez. Hori da naturak berez dakarrena. Gipuzkoa bere ezaugarriengatik basolekua da. Garai batean eraldatutako zelai horiek guztiak berriro ari dira baso bihurtzen. Ondorioz, basoekin lotutako espezieak, ugaritzen ari dira, habitat mesedegarriagoa dutelako. Aldiz, landazabalarekin lotutako hainbat espezie, murrizten ari dira, bere habitata murrizten ari delako.

Bien arteko oreka litzateke egokiena, baina zaila?

Zer izango litzateke polita? Bien artean oreka bat mantendu, eta bie ondo eustea. Neure ustez erronka landazabalari eustea da. Basoa oso eratu eta hedatua dago. Ondo legoke landazabalari eustea, baina nahiko lan izango ditugu.

Mikel Olanoren emanaldia

■ Maiatzak 15 igandea.

■ Goizeko 10:00etan Saizarren.

“Oso ondo pasatzen dugu saio hauetan”

Zer jarrerarekin joan behar dugu beraz, igandeko ekitaldira?

Mikel Olano: Igande goiza hartu, txori kantuak ikasiz gozatzeko. Hegaztiei buruz galdetu lasai. Nik ez dakit dena ezta gutxiago ere, baina dakidana azaltzen saiatuko naiz. Gero txori kantak entzunez, gozatu egingo dugu. Oso ondo pasatzen dugu.

Bisita gidatuak egin izan dituzu. Zein izan ohi da jendearen inpresioa?

Jende asko eta asko, harrirtuta geratzen da. Sekula ez dira jarri entzuten. Gero asko harrizten dira, kantatzen ari dena espezie bat edo beste dela esatean. Zorte pixka batekin prisma-tikoekin gainera ikusi egiten dira. Orduan mundiala izaten da.

“Aranerrek

bertan bospasei

espezie entzun ditut”

Leku bera beste modu batean ezagutzeko aukera izango da?

Anaerrek bertan, kotxea aparkatu eta bospasei espezie entzun ditut. Txoriak hor daude, gertatzen dena da naturarekiko geroz eta urrunago gaudela. Ez gara jabetzen. Beste mundu batean bizi gara, estralurtarren moduan. Ez gara jabetzen zer dugun aldamenean. Azkenean jabetu behar gara gu espezie bat gehiago garelako, beste espezieak bezalaxe, espezie bat gehiago kate berean.

Martxan da Sagastiak Loretan

Maiatzak 15 igandea

■ 10:00 Mikel Olano, txorietan adituaren emanaldia Saizar sagardotegian.

■ Ondoren, taldea Anaerrekara txorien kantuak entzutera.

■ 10:30 Pilota partidak (Usurbilgo lehen mailako txapelketako bi partida).

■ 11:00 Herriko ekoizleen azoka irekiera trikitilarietara.

■ 12:00 Meza Salbatore elizan.

■ 12:30 Hamaiketako, Bordatxuriko oilaskoak (LumaGorri).

■ 13:30 Bertso saioa: Amets Arzallus eta Elixabete Pagola.

■ 14:30 Bertso-Bazkaria Saizar sagardotegian. (Txartelak salgai izan dira Alkartasuna Kooperatibaren eta NOAUA!n. Prezioa: 30 euro). Menua: Bakailao-tortilla; Bakailao frijitua piper berdeekin; Idi txuleta; Gazta, intxaurreak eta irasagarra; Teilak eta zigarrotxoak; Ura, sagardoa, ardoa eta kafea.

■ 17:30 Herri kirolak: emakume eta gizon proba. Aizkora, trontza eta txinga lehiaketa.

■ 18:00 Kalejira erraldoi eta buruhandien konpartsarekin.

■ Oharra: eguraldiaren arabera, goizeko ekitaldia herriko



Herri kirolak ikusteko aukera izango da igande honetan, arratsalde partean.

plazan edo Askatasuna plazan egin daiteke.

■ Antolatzailea: Alkartasuna Baserritarren Kooperatiba.

■ Laguntzaileak: Usurbilgo Udala, NOAUA! Kultur Elkartea eta LumaGorri.

Maiatzak 19 osteguna

■ 11:00 Euskal Herriko Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpena Potxoenean.

Maiatzak 22 igandea:

35. Sagardo Eguna

■ 10:30 "Sagardotegia, gure kolejiyua" kantatu zuen Uda-

rregi bertsolariaren oroimenez, Remigio Mendibururen eskultura duela 50 urte jarri zela goratzeko ekitaldia.

■ 11:00 Potxoenea atarian duela 20 urte egindako NOAUA!ko bazkideen argazkia berrituko dugu.

■ 11:30 Hasiera ekitaldia, NOAUA!ren eskutik.

Goizean zehar, frontoian herriko baserritarrak eta beste sagardogileak izango dira, Dema plazan Gipuzkoako sagardogileen elkarteko postuak jarriko dira eta Askatasuna plazan Eusko Labelean sartuta dauden sagardoak dastatzeko aukera

izango da. Pintxoak dastatzeko aukera ere izango da.

■ 12:00-13:30 "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa Sute-giko erakustaretoan.

■ 18:00-21:00 "Elektro Patxaranga" kaleetan zehar.

■ Antolatzailea: Sagardo Egunaren Lagunak.

Ekainak 4 larunbata

■ 09:00-13:00 Sagarrondotik Sagardora ikastaro zikloko saioa Potxoenean: "Sagastien udako kimaketa, gaitzak eta izurriteak".

■ Bideratzailea: Aitor Etxeandia.

■ Informazio gehiagorako eta izen emateko: 943 361 114 alkartasuna@usurbil.com alkartasuna.eus

■ Antolatzailea: Alkartasuna Kooperatiba.

Elkarlanean: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserritarren Kooperatiba, NOAUA! Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

"Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketaren irekiera

Hernanin izan ostean Usurbila dator, Sagardoetxea Museoak, Astigarraga, Hernani eta Usurbilgo Udalekin eta Donostiako Aquarium-arekin elkarlanean sustatuko erakusketa ibiltaria. Ostiral honetan inauguratuko da, 19:00etan Sute-giko aretoan.

Oria eta Urumea ibaiak sagardoaren inguruan gordetzen dituzten hainbat sekretuen berri emango du erakusketak. Bi ibaiotan, ontzigintzak esaterako, izan zuen garrantzia. Ba al zenekiten Usurbilek bederatzi portu ere izan zituela garai batean? Edo Gipuzkoako



Erakusketa ibiltaria Usurbilen izango da egunotan. Ostiralean egingo da irekiera ekitaldia, arratsaldeko 19:00etan Sute-giko erakusketa aretoan.

ontzigile ospetsuenak inguruotakoak zirela?. Aipatu erri hauek, "bi bailara hauek tako bizilagunen komunikazio eta harreman ekonomikoen

antolaketa eta Gipuzkoako garapen historikoan berebiziko garrantzia izan zutela erakutsi digute", diote antolatzailleek.

Maiatzak 13-22

Sute-giko erakusketa gelan

■ "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa. Ordutegia: asteazkenetik ostiralera, 18:00etatik 20:00etara; larunbatean 12:00etik 13:30etara eta 18:00etatik 20:00etara, eta igandean 12:00etik 13:30etara.

■ Tokia: Sute-giko erakustaretoa.

■ Oharra: irekiera, ostiral honetan, 19:00etan.

■ Antolatzaileak: Sagardoaren Lurralde; Usurbil, Hernani eta Astigarragako Udalak; Donostiako Aquarium-a.

Herriko uzta, plazan

Herriko ekoizleen azokara gerturatu eta etxean egiten dutena ezagutzeko aukera aparta izango da San Ixidro Egunez. Plazara datozen bi ekoizlerekin bildu gara, azoka bezpera hauetan. Santueneko erriberan Arrospide Barazkiak-eko Mirotz Arrospiderek, eta Han Goiko Arrautzak-eko Aitziber Elortzarekin.

Aitziber Elortza, Han Goiko Arrautzak: “Oso lotua da, baina oso esker oneko lana da”

NOAUA! Zuen lan jarduna, familia negozioa duzue?

Aitziber Elortza. Berez Jexux Agirresaroberen izenean dago negozioa, baina familia guztiak daramagu dena, laguntza behar baita. Oilategia dugu eta hori Jexuxek darama. Horrez gain, gero neroni ari naiz lan ordu gehiago sartuz, arrautzetatik eratorritako beste produktu batzuk lantzen; adibidez, bizkotxoak, flanak... Horiek denak pixkanaka merkaturatzen ari gara. Egurrezko labe txiki bat badugu eta horrek ere gainbalio bat ematen dio produktuari.

Oilategiko egitasmoak non du abiapuntua?

Guk berez lur pusketa bat bagenuen. Ez handia. Jexux une jakin batean lanean ez zebilen batere ondo. Lur eremua genuenez, kontsumo kooperatibak sortu ziren eta haren bidez bileretara joanez hasi ginen. Ekoizleak behar zirela eta lurra genuenez, Jexux hasi zen probatzen. Probatuz ondo joan da, lana gogor eginez emaitzak jaso ditugu eta hor gaude. Azkenean jauzi handi bat eman genuen, kontsumo kooperatiba batetik era profesional batean lan egitera. Lau oilorekin hasi ginen. Gero 50-100 izatera pasa ginen. 500-750 oilo izatera heldu gara. Era ekologikoan lan egiten dugu. Elikagaiak bakarrik ez, bide batez, ingurugiroa ere zaintzen laguntzen dugu.

Apustu honen alde egitea zaila



“Lan ikaragarria du baina batez ere oso lotua da”, Aitziber Elortzak esan digunez.

HAN GOIKO ARRAUTZAK

“Era ekologikoan lan egiten dugu. Elikagaiak bakarrik ez, bide batez, ingurugiroa ere zaintzen laguntzen dugu”

izan zen?

Egia da oztopo asko gainditzen jakin egin behar dela, eta ez gaudela ohituta gizarte honetan oztopo horiek gainditzera.

Bizimodu aldaketa eragingo zizuen?

Ezin dugu oporretara joan. Eguneroko lana dugu. Gainera, beste baten eskuetan jarriz gero, zapuztu egiten da lana. Oso konplexua da. Oso esker oneko lana da, oso goxoa, baina jakin egin behar da bizitzen.

Nolakoa da zuen egunerokoa?

Goizean goizetik, lehenbailehen joan behar izaten da gora. Arrautzak bildu, oiloei kasu egin, nola dauden ikusi, ura eman, garbitu, txukun daudela ikusi. Arrautz horiek sailkatu.

Arratsaldean, jaten eman, berri ere ikusi ondo dauden, hurrengo egunerako dena ondo utzi. Bitarte horietan arrautzak sailkatu, saltzeko banatu.

Lan handia.

Bai, baina gustura egiten dugu. Lan ikaragarria baina batez ere oso lotua. Nik uste gizarte honetan lotura hori ez dagoela ondo ikusia. Ez dago jai egunik, kakotxa artean. Hori onartzea kostatzen da. Baina ohitu egin gara.

Ekoizpenari irteera nola bilatu diozue?

Europa mailan garrantzia askoz handiagoa ematen zaio nekazaritzari, orduan askoz erraztuagoa dago dena. Hemen kosta egiten da onarpen hori eta batez ere kalitatearekin ari garenean lehiatzen. Merkatuan kontzientzia hori sartzea ez dago batere landua. Baina askotan produktuok probatzen ez direlako, probatuz gero ohitu eta genero ona jatera ohitzen zara. Gero kosta egiten da bestera bueltatzera.

Arrautzak eta arrautzetatik eratorritako produktuak

NOAUA! Kalitatea geroz eta gehiago eskatzen da?

Aitziber Elortza. Bai. Pixkanaka zabaltzen doa kalitatearen kontua, bertakoa izatea, animaliak ondo zainduta egotearen balorea. Guk nahiago izaten dugu ahal den gehiena bertan saldu, eta gertutasun horri garrantzia eman.

Kontzientzia lantzeko, ze gabezia daude?

Gabezia asko. Goitik asko landu beharko litzateke. Baserriak ez luke laguntzetatik bizi behar. Bizi beharko luke normaltasunez, lantegi baten moduan. Baserriari, gertutasunari bere balorea eman beharko litzaiok. Lur asko dago Usurbilen eta inguruetan, eta alferrik galtzen ari gara. Askotan zementuz josten ditugu eta horrek ez du jaten ematen. Krisiaren aurrean dagoen alternatiba indartsuenetako bat da lurra. Lana egin nahi duenak alternatiba piloa du baserri munduan.

San Ixidro Eguneko azokan izango zarete. Zer aurkituko dugu zuen postuan?

Arrautzak eta arrautzetatik eratorritako produktuak; bizkotxoak, flanak. Kuriositatea sortu, ezagutu eta gai hauekiko jakinmina eta kontzientzia lantzeko aukera izango da. Oso kontzientzia gutxi dago oro har. Askoz gehiago landu daiteke. Askoz hitz egiten da, egin gutxi. Azoka horrekin hau guztia landu nahi da.

Mirotz Arrospide: “Bezeroengana geronek eramaten ditugu produktuak”



“Hiru bat urte dira honetatik bizi naizela”. Mirotz Arrospidek etxetik jaso ditu ofizioaren sekretuak.

Zuena, familia negozio gisa definitu genezake?

Mirotz Arrospide, Arrospide Barazkiak: Bakarrik ibiltzen naiz. Maisua aita izan da, dena irakatsi didana. Nagusia beti bera izango da. Kasu egin behar zaio, lege zaharrekoak dira, asko dakite. 20 bat urte daramatza. Ni gaztetxo nintzela hasi nintzen. 3 bat urte dira honetatik bizi naizela.

Nolatan erabaki zenuen lan honetatik bizitzea?

Gasolindegian eta baratzean nebilen aldi berean. Erre samar. Bat edo beste aukeratu behar, gasolindegian segitzeko bermarik ez eta, gustuko nuenez, baratzatik bizitzea erabaki nuen, segida emateko.

Hartutako erabakiarekin asmatu zenuela esan daiteke?

Bai. Gogorra da, baina gustura nabil eta horrek asko balio du. Apustua egina dago, ez dago atzera bueltarik.

Nolakoa da zure egunerokoa? Goizean 5:00-5:30ak aldera jai ki. Goizean zehar, banaketak

MIROTZ ARROSPIDE

“Gogorra da, baina gustura nabil eta horrek asko balio du. Apustua egina dago, ez dago atzera bueltarik”

egiten ditut. Eguerdian moka du bat egin etxean. Batzuetan siesta, oso nekatuta bagaude, edo bestela giro bada, segituan iluntzera arte baratzera.

Zer moduzkoa duzue aurtengo ekoizpena?

Ondo doa. Udaberria oraingoz nahiko ona ari da egiten. Negua nahiko epela izan da. Beldurra dugu, izotza ez badu egiten, horrek izurrite eta gaitz asko ekaritzen ditu uda aldera.

Zer produktu ekoizten dituzue?

Bi ekoizpen lerro ditugu. Batetik mikrobarazkienak; azenario oso txikiak, tipulina more eta txuria txikiak, baratxuri fresko txikiak, porru txikiak... Horiek jatetxe onetara eramaten ditugu. Bes-

talde, lore eta kimuekin hasi gara orain lan asko egiten. Horrez gain, betiko baratza dugu; tomatea, piperra, letxugak, porrua, azenario handiak, artoa, babarruna... denetarik.

Herritar nahiz turistek dastatzen dute zuen uzta.

Bezeroen artean, Usurbilgo Txalaka denda eta jatetxe pare bat ditugu. Eta gero Martin Berasategi, Mugaritz, Mirador de Uliá, edota Donostiako Alde Zaharreko Urola edota Fuego Negro jatetxeak. Lan dezente egiten dugu guztiok.

Marka ezagun hauek, tokiko produktuen aldeko apustua egiten ari dira beraz.

Hemengo produktuen alde asko egiten dute. Beti esaten digute, niri hemengo ekarri. Prezioa berdin zait, baina ona ekarri. Bertakoa, zuena. Gaur bildu eta ordu erdira jatetxean izatea nahi izaten dute, exigenteak dira. Onena da, bezeroengana geronek eramaten ditugula produktuak. Ez dago bitartekaririk. Salmenta zuzena da eta horrek asko egiten du.

“Gazte jendea dabil baratzean, segida ikusten diot”

NOAUA! Baratzak ematen du bizitzeko lain?

Mirotz Arrospide, Arrospide Barazkiak: Bizitzeko lain ematen du. Baina lan orduak ezin dira zenbatu, ordu asko dira. Oporrik ez dago.

Zer iruditzen zaizu San Ixidro Eguneko azokarako, etxeko ekoizleen alde egin den apustuak?

Oso ondo iruditzen zait, jendeak behintzat ikus dezala zer egiten dugun. Nik ordea beste data bat proposatuko nuke; jada baratzean gauza gehiago egoten den garai bat, uztaila, abuztua edo iraila.

Zer ikusiko dugu zuen postuan?

Gehienbat, ekoizten ditugun barazki txikiak. Ikusi nahi dutenek zer egiten den herrian, azaldu daitezela San Ixidro Egunez, Usurbilgo plazara. Han izango gara.

Baratzei eusten ari zaie inguruotan?

Bai, nahiko gazte dabil baratzean. Segida ikusten dut. Urteek esango dute, ia zenbat jasaten dugun. Bide batez, errioa saneatu beharra dagoela esan nahi nuke. Horren beharra dago hemen.



“Errioa saneatu beharra dagoela esan nahi nuke”.

ERLEZAINNTZA IKASTAROA



Erlezaintza ikastaroa:
NUKLEOAK EGITEN IKASI ETA
BIDERKATU ZURE ERLEAK
 (ikastaro teoriko-praktikoa)
TOKIA: Alkartasuna Kooperatiba

Julian Urkiola izango da irakaslea, hainbat urtez Gipuzkoako Erlezainen Elkarteko lehen-dakaria izandakoa, erlezaintzan aditua.

Bi saio izango dira;
MAIATZAK 21, LARUNBATA eta
MAIATZAK 28, LARUNBATA
ORDUA: 11:00-13:30



Ikastaroaren prezioa 6€-takoa izango da
(Alkartasuna Kooperatibaren bazkideak DOAN).

IZEN-EMATEA: Alkartasuna kooperatiba • Atallu Industrialdea 26, USURBIL. Tel: 943 361 114 • e-maila: alkartasuna@usurbil.com




noqua

Maiatzak 15, igandea

"Udaberria: Sagastiak loretan eta txoriak kantuan"
 Mikel Olano txorietan adituarekin, Saizar Sagardotegian, 10:00etan, txorien kantuek entzuten ikasteko aukera. Ondoren kantuek entzutera, Anaerrika aldera. Ekitaldi gehiago egongo dira San Ixidro egunean zehar.

ELKARLANEAN: Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak, Alkartasuna Usurbilgo Baserrilaren Kooperatiba, Noqual Kultur Elkartea, Usurbilgo Sagastia E.M., Sagardoaren Unibertsitatea, Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizi Sagardoa, Usurbilgo Udala.

Bisitan izan da Zero Waste Europe mugimenduko lehendakaria

Errausketa “zaharkitutako teknologia da, etorkizuneko baliabideak alferrik galtzen dituena. Era berean, kutsadura iturri handia da, eta ondorioz, gure osasuna eta ingurugiroa babesteko beharra daukagu. Errauskailua baldin badaukazu, ez dago baliabiderik gaikako bilketarako eta praktika onetarako. Errausketa iragana da, eta etorkizuna behar dugu!”. Hala zioen Rossano Ercolini, Zero Waste Europe mugimenduko lehendakaria, berriki Urumeako Kronika egunkariari eskainitako elkarrizketa batean. Egunotan Zubietan izan da bisitan.

Errausketa, hondakinak kudeatzeko biderik txarrena dela dio. “Errausketa da zaborra kudeatzeko biderik txarrena; oso garestia da, ez du lanposturik sortzen komunitatearentzako eta 30 urtetarako eraikitzen baduzu, hura elikatu behar duzu, eta ondorioz, birziklatzea eta konposta egitea baztertzen duzu. Osasun arazoei dagokienez, berriz, saihestu badaiteke, arriskurik txikiena hartzea ere ez da onargarria. Beraz, osasuna, ingurugiroa eta ekonomiarentzako errausketa baino aukera hobek badauke, zergatik sustatu enpresa batek bultzatzen duen horrelako teknologia garestia?”, galdetzen du.

Goldman Price saria

Ercolini, ofizioz maisua da lehen mailako eskola batean. Erraustegiaren aurkako borroka



Zubietan izan zen, zero gunean, herri mugimendu zein udal ordezkariekin.

ROSSANO ERCOLINI

“Osasuna, ingurugiroa eta ekonomiarentzako errausketa baino aukera hobek badaude, zergatik sustatu enpresa batek bultzatzen duen horrelako teknologia garestia?”

duela 20 urte baino gehiago abiatu zuen. 1994an, bere sorterrian, Italiano Capannorin eraiki nahi zuten erraustegiaren aurkako “Ambiente e Futuro” talde txikia sortu zuen. 1996an zero zabor aldarria zabaltzen hasi zen eta sorterria, Europako lehen Zero Waste (Zero Zabor) udalerrri bilakatu zen. Hortik sortuko zen gerora Italiako Rifiuti Zero mugimendua, egungo Europako indartsuena. Ercolini Goldman Price saria jaso zuen bere lanagatik 2013an. Berrikitan liburu bat ateratu du “Ez dezagun etorkizuna erre” tituluarekin. Lehenago gure ar-

tean izana da Ercolini, gai honi buruz antolatutako diren jardunaldietan. Asteburu honetan itzuli da.

Usurbilen eta Zubietan izan da bisitan

Larunbatean Hernaniko Biteri kultur etxean “Ez erraustu etorkizuna. Zero Zabor da bidea” hitzaldia eskaini zuen Ercolinik. Asteburu pasa honen baitan, bisitan izan genuen igande goizean Usurbilen. Lehenbizi, errausketaren zero gunera igo zen, Usurbilgo Udaleko, Zubietako Herri Batzarreko, Hernanin Zero Zabor taldeko edota Erraustegiaren Aurkako Usurbilgo Taldeko kideekin batera. Gertutik ikusi ahal izan zuen, une honetan erraustegia egiteko gunean dagoen zulo puska. Usurbila jaitsi ziren gero. Sorterrira itzultzeko hegaldia hartu aurretik, udalerrri honetako hondakinen kudeaketa eredu ezagutzeko aukera izan zuen Ercolinik.

GHK-ren azken erabakiak

GHK-k presaz eta urgentziaz onartu du Zubietako erraustete plantaren aurreproiektua eta esleipenerako bideragarritasun azterketa. 1.216 milioi euroko kostua eragingo omen du. 35 urtez, 31,5 milioi euro ordaindu beharko dugu. Eta erraustegia kudeatuko duen enpresak aldiz, 35 urteetan 128 milioi euroko irabazi garbiak izango ditu.

Errekurtsoak, baimen bateratuari

Eusko Jaurlaritzak erraustegia eraikitzeko GHK-ri emandako ingurumen baimen bateratua baliogabetzea eskatzeko errekurtsoak aurkezteko aukera zegoen maiatzaren 11ra arte. Gipuzkoako Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak norbanakoei errekurtsoak aurkezteko urgentziazko deialdia egin du azken egunotan.

Yoga tailerra Etumeta AEK euskaltegian

Saio bikoitza antolatu du Etumeta AEK euskaltegiak, maiatzaren 18rako. Lehenengoa goiz parterako, 10:00-12:00 artean, eta bigarrena, arratsalde parterako, 17:00-19:00 artean. Javier Merinok bideratuko duen tailerra, “ikasleentzako prestatuta badago ere, herriko beste edonork parte har dezake”. Izena aurrez eman behar da: 607 609 379. Prezioa: 2 euro. Parte hartu asmo dutenek “arropa eroso eta esterila” eraman behar dute saiora.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiaurrenea, nº2
☎ 943 36 55 81
20170 Usurbil

EROSKI city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

Patrienea
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, asteazkenetik larunbatera
☎ 943 362725 · ☎ 688 690 361

Gure Esku Dagoren lehen galdeketak ekainaren 5ean, Usurbilen 2017an

Gipuzkoako Goierri eta Debagoiena eskualdeetan, Aramaion, Azpeitian edota Ispasterren, guztira 34 udalerritan euskal estatuari buruzko lehen galdeketak egin dituzte ekainaren 5ean.

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak tarteko, ekainaren 12 eta 19rako iragarriak zituzten hitzordu guztiok aurreratu behar izan ditu, Gure Esku Dago mugimenduak. 150.000 herritarrek parte hartzeko aukera izango dute.



Gorteetarako hauteskundeak tarteko, ekainaren 5era aurreratu da galdeketa.

Azaroan galdeketa gehiago izango dira, eta 2017an besteak beste, Usurbilen txanda izango da.

Udajolas: izen emate guztiak onartuak

NOAUA! Kultur Elkartek Usurbilgo Udalarekin elkarlanean uztaileko antolatutako aisialdiko ekimenean, 4-12 urte arteko 183 haur eta gaztetxok eman zuten izena maiatzaren 2tik 6ra, inskripziarako zabaldu zen epearen baitan.

Iaz baino dozena bat lagun gehiago. Halere izen emateek 200 lagunentzako aurreikusitako plaza kopurua gainditu ez dutenez, ez da zozketarik egin beharrik izango. Izen emate eskaera guztiak, onartu



Zubietako Txokoetan izena emateko epea maiatzaren 20an amaituko da.

dira beraz. Gogoan izan orain; Udajolaserako matrikulatuak dauden haurren gurasoei zuzenduriko bilera egingo da

ekainaren 2an, 17:00etan Potxoenean.

Zubietako txokoetako izen-ematea irekita

Apirilaren 30a baino lehen aurre izen eman zutenek, maiatzaren 20ra arteko epea dute matrikulatzeko.

Matrikula orria bete eta kuota ordaindu behar da.

Izen emateko idatzi zubietatxoko@gmail.com helbidera. Bestela, Zubietako Eskolan eskura ditzakezue inskripzio orriak.

Saritu gehiago NOAUA! zozketetan

Hogei urte betetzear den NOAUA! K.E.-k hamarkadotan bazkideok eskaintako laguntza eskertzen jarraitu nahi du, sari ezberdinak oparituz. Miren Arruti Huegun bazkideari "Heroiak" antzezlanerako 2 sarrera tokatu zitzaizkion.

Azken asteotan Jexux Artzeren omenez ospatu diren ekitaldiarako sarrerak zozketatu di-

tugu. Koro Labakari, "Berri ona" filma ikusteko 2 sarrera egokitu zitzaizkion. Eta iruditan dituzue; Miren Arruti Hueguni "Heroiak" antzezlanerako 2 sarrera. Javier Muguruza eta taldearen kontzerturako beste bi sarrera Beñat Larrañaga Urdanpilletari. Zorionak! Eta milesker proiektu hau laguntzeko egiten duzuen ahaleginagatik. Gainerako bazkideok adi, zozketa gehiago egingo ditugu eta laster.



Miren Arruti bazkidea, sariarekin.

Futbola Haranen
Maiatzak 14, larunbata
12:00 Alebin neskek:
Udarregi 6A-Astigarraga

Maiatzak 15, igandea
10:00 Futbol Eskola:
Usurbil F.T.-Orereta.

Jaietako egitaraua diseinatzeko lehiaketa martxan

Maiatzaren 20a baino lehen aurkeztu behar dira. Egitarauko testua eta lehiaketako oinarrien berri Potxoenean jaso daiteke. Informazio gehiagorako: 943 371 999 edo kultura@usurbil.eus

"Urrutiko intxaurrak hamalau" jaialdian parte hartzeko aukera irekita

16 urtetik gora izan eta denetarikoa dohainak jendaurrean erakusteko prest diren herritarren bila dabil Ixabel Agirresarobe usurbildarra. Ekainaren 29rako usurbildarrak eta euren zaletasun eta abileziak protagonistak izango dituen herri ikuskizuna antolatzen dabil. Bertan norbanako nahiz talde orok parte hartu eta erakustaldi txiki bat eskaini dezake. Saio laburrak izan behar dute, gutxienez 5 bat minutukoak.

Izen emateko epea: maiatzak 15

Izen emateko epea maiatzaren 15ean itxiko da. Apuntatzeko bideok dituzue: ixabel.agirresarobe@gmail.com edo 675 712 383. Izen ematekoan, eskaini nahi duzuen saio labur horren zehaztasunen berri eman; edukia, iraupena, beharko dituzuen baliabideak.

Igandean, kayak egiteko aukera igerilekuan

Igande honetan, maiatzak 15, Oiardo igerilekura hurbiltzen diren gaztetxoek kirol jarduera berri bat ezagutzeko aukera ona izango dute: igerilekuko kayaksurf.

Xabier Olano usurbildar piraguista Donostiako RCNSS kluban dabil entrenatzaile lanetan. Edu Etxeberriarekin batera, kayaksurfeko talde bat entrenatzen. "Neska-mutil talde berria dugu eta hauen entrenamendu espezifikoa egitera Usurbilgo Kiroldegiko igerilekura etorri izan gara", Xabier Olanok aditzera eman digunez. Piraguaren in-



Igande honetan, goizeko 11:00etatik 13:00era kayak saioa Oiardoko igerilekuan.

guruako jarduerak kiroldegietako igerilekuan ere egin daitezkeela uste du Olanok, eta dagoeneko Donostiako Nautiko Kayaksurf taldea ari da horretan.

Kayaksurf erakustaldia Oiardo kiroldegiko igerilekuan

- Maiatzak 15 igandea.
- 11:00-13:00.
- Kiroldegiko igerilekuan.
- Begiralea: Xabier Olano.

Senior nesken igoera fasea, Castro Urdialesen

Kantabrian, Castro Urdialesen lehiatuko dira senior neskek asteburu honetan, maiatzaren 13tik 15era. Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko sektorea jokatuko dute:

- Jokatuko duten sektorea: "B".
- Noiz: maiatzak 13, 14, 15.
- Non: Castro Urdiales (Kantabria).
- Aurkariak: Castro-Urdiales (Kantabria), Baztango BKT (Nafarroa), A.D. La Jota (Aragoi).



Maiatzak 13, ostirala

18:00 Castro-Urdiales-A.D. La Jota
20:00 Usurbil K.E.-Baztango BKT

Maiatzak 14, larunbata

18:00 Castro-Urdiales-Baztango BKT
20:00 Usurbil K.E.-A.D. La Jota

Maiatzak 15, igandea

10:15 Castro-Urdiales-Usurbil K.E.
12:30 A.D. La Jota-Baztango BKT

Bruño mariskada, Xeles Kaminori

Usurbil Keren zozketan, Xeles Kamino izan da azken saritua, 8.512 zenbakiarekin. Bruño etxeko mariskada jaso du.



1. Nazionalean jarraituko dute senior mutilek



Sailkapen buruan den Tolosaren aurkako neurketa irabaziz amaitu du denboraldia, Usurbil Kirol Elkarteko 1. Nazional mailako senior mutileen taldeak. 12. postuan amaitu dute sailkatuta, 23 punturekin. 2016-17 denboraldian maila berean jokatuko dute.

Usurbilgo 44. Pilota Txapelketa

Maiatzak 14 larunbata, 11:00h
Nagusiak Lehen Maila
Ezkurdia-Bergera (Irurtzun)
Azketa -Atxa (Zegama)

Etxaniz-Murgiondo (Azpeitia)
Mazkieran-Goñi (Huarte)

Maiatzak 15 igandea, 10:30h
Nagusiak Lehen Maila
Muguruza-Uzkudun (Bergara)
Baez-Medina (Lazkao)

Apezetxea-Lizeaga (Hernani)
Egiguren-Etxeberria (Andoain)

Eskubaloi partidak

Oiardo Kiroldegian Maiatzak 14, larunbata

Infantil mutilak, Gipuzkoako
Txapelketako finalerdiak:

- 09:30 Urnieta Ñam Restaurantes-Canterias Dominguez Pulpo
- 10:40 Bidasoa Irun A-Tolosa Eskubaloia A

Infantil neskek, Gipuzkoako
Txapelketako finalerdiak:

- 11:50 Grupo Cometel Elgoibar-Aiala D ZKE
- 13:00 Dario Bus Elgoibar-Tropaia Taberna Pulpo
- 15:30 Alebin neska-mutilak, Errendimenduko Gipuzkoako Txapelketa: prestakuntza saioa.
- 18:30 Kadete neskek, Gipuzkoako Kopa: Usurbil K.E. "A"-Bera Bera
- Hernaniko udal kiroldegian, ordua zehazteke: alebin mutilak, Buruntzaldea: Udarregi 5C-Langile A
- Urnietako udal kiroldegian, ordua zehazteke: Udarregi 5A-Urnieta 5A

Maiatzak 15, igandea

- 09:15 Jubenil neskek, Gipuzkoako selekzioa: prestakuntza saioa. Deitu dituzten jokalarien artean, Usurbil K.E.-ko jokalariek daude: Ane Ibarzabal, Ane Retolaza, Eider Makazaga, Estitxu Bera-sategi, Nagore Lertxundi.
- 11:45 Infantil neskek, Gipuzkoako Txapelketa: Udarregi A Usurbil-Izaro-Lau Bide Iturgintza.

Infantilen lehiako azken txanpa,

Usurbilen

Infantil neska-mutileen Gipuzkoako txapelketako azken neurketak Oiardo Kiroldegian jokatzea onartu du Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak: finalerdiak asteburu honetan eta finalak astebete barru.

Pagazpe 2-Huarte 1 Berria Txapelketan

Hernanin jokatu ziren partidak. Usurbilgo pilota taldeak Huarte zuen aurkari eta 2-1 irabazi zuen kanporaketa.

■ Kadeteak:
Galarraga-Aranguren 22
Peñas-Betelu 2

■ Jubenilak:
Exposito-Aranberri 10
Etxeberria-Gurrea 22

■ Nagusiak:
Urbieta-Gorrotxategi 22
Espinal-Sarasa 18

ETXEBIZITZA

Salgai

BOE-ko 79m² etxebizitza Aginagan salgai. 3 logela handi, 2 komun, saloi handia, sukaldea... Dena kanpokaldera, balkoi-terrazarekin, eguzkitsua, garaje itxia, trastelekua. 629631838

Pisua salgai Munalurran, guztiz berriua, 60 metro, 140.000 euro. TI: 636393237

Etxebizitza salgai Santuenea 21ean. 69 m². Sukalde jangela, komuna, egongela eta bi logela. Hiriko gasa. Eguzkitsua. Dena kanporaldera. Prezioa 150.000 euro. Ramón 615149900.

Pisu bat salgai. 90 metro karratu. 3 logela, 2 bainugela, jan-egongela eta sukaldea jantokia aparte duela. 605 707 642.

2 gela, komuna, sukaldea eta sala dituen etxe bat erosiko nuke. Gehienez 90.000 euro. 689 58 39 21.

Bi gelako etxebizitza salgai. Komuna, hall, sukaldea. Eguzkitsua. 3. pisua igogailuarekin Muna Lurra kalean. 175.000 euro (620826891).

Etxe txiki eta merke bat erosi nahi nuke. Edo alokairu baxuko bat hartuko nuke. 615 758 476.

Etxea salgai (Kutxa gainean). 3 logela, egongela, sukaldea, komuna, trastelekua. Dena kanpokaldera. 607 572 106

Etxebizitza eta garaje marra salgai Munalurran. 4. pisua. 2 gela, egongela, komuna eta sukaldea. 163.000 euro. Tel. 646 663 405.

Pisu bat salgai Munalurran. Erreformatu berria. 690 15 36 31 (Ane)

Pisua salgai Urdaiajan. Trenbide-pasagunearen ondoan. 56m². Pisu baxua. Berritua. Sukalde irekia, esekilekua, egongela, 2 logela eta komuna. Komuna salbu gela guztiak ditu kanpora. 90.000 euro. 646344847

Pisua salgai edo alokairuan Mu-

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, eguerdiko 12:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berriak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOUA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

nalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Irñaki (665736896)

Etxe bat salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela; sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezetatan

Etxea salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpokaldera. Egoera ezin hobean. Merkea, 678 581 991.

Alokairuan

Alokairuko pisu txiki baten bila nabil. Presa dauka. 699 680 265.

Alokairuko pisu baten bila nabil, bi gelakoa 500-650 euro artean, edo hiru gelakoa 550-700 euro artean. 632129182 Claudio

3 logela dituen alokairuko pisu baten bila nabil, baina epe motz batean (urte 1) erosteko aukerarekin. Tel. 686 554 145. Ana.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, 3 logeekin posible bada. 648 220 432.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. Tel. 603 336 046.

Pisu bat alokairuan Puntapax-en. 3 logela, egongela, sukaldea eta komuna. Duplex modukoa, oso oso berezi jarrita. 627 496 740. Carlos.

Pisu baten bila nabil, altzariekien eta gehienez 550 euro. 661 378 340.

Alokairuko pisu baten bila nabil. Tel: 620 708 265 / 686 143 7866.

Gela bat alokatzen dut Usurbilen. Emakume edo neska arduratsua izan behar du. Tel. 665 319 105.

Logela bat alokatzen dut. Pertsona 1 edo 2rentzat. Prezio ona. 657 535 299.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen, nominarekin. 664885737.

Pisu baten bila nabil, txikia eta merkea. Txakurra daukat. 682 214 506.

Emakume bat gela baten bila dabil partekatzeko 17:30-18:30 deitu (Marisol). 674463942

MOTORRA

Salmenta,

garaieak

Hiru lokal, komertzio edo garaje moduan salgai Santuenean. 16, 18 eta 42 metro koadrokoak. Argitsuak. 671 547 567.

Baju komertzial bat salgai Erdiko kalean. 62 metro koadro, solairuarate batekin. 600 369 013 / 943 371 827

Garaje itxi bat salgai 36,30 metro koadro. 2 kotxerentzat edo garaje-trastero moduan. Errekatxiki-Puntapaxetik. 653380557.

Oso argitsua den 70 metro karratuko lokal komertziala salgai Santuenea auzoan. 671547567

Lokal komertzial bat salgai, 60 metro karratu. Erdigunean. Tel. 679 732 489.

Garaje itxi bila nabil. Motorra uzteko bilango litzateke. 645720571

Bi garaje saltzen dira. Batera edo binaka. 21 eta 25 metro koadrokoak Santuenea 17. 615149900.

Moto bat salgai, Kymco markakoa. People 125. 618 963 385.

2 Garaje (marra) salgai edo alokairuan. Biak batera edo aparte. Olarrondo inguruan. 607 333 966.

LANPOSTUAK

Lan eskaintzak

Zerbitzari euskaldun bat behar da esperientziarekin. Interesatuok idatzi email bat: atxega@atxegajauregia.com

Estetizista bat behar da ilea-painidegi batean lan egiteko. 943361971

LANPOSTUAK

Lan eskaerak

Etxeak eta bulegoak garbitzeko, eta pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Asteburuetan eta ospitalean gauak pasatzeko ere bai. Tel. 606 661 048.

Etxeak, bulegoak eta portalak garbitzeko edo pertsona helduak zaintzeko eskaintzen naiz. Tel. 673 256 566.

Neska arduratsua bat eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. Libre edozein momentutan hasteko moduan. 629 110 310.

Etxez etxe txakurrei ilea mozteko eskaintzen naiz, material guztiarekin eta txakur ileapaintzaile tituluarekin. 666 798 804.

Lan bila nabil, umeak edo pertsona helduak zaintzen. Interna moduan ere bai. Paperekin eta erreferentziarekin. Tel. 667 281 660.

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 631 108 012

Lan bila nabil. Interna moduan, orduka edo baserrian lan egiteko. 619 355 819

Mutil bat lan egiteko prest. Pertsona helduak zaintzen, baserrian animaliak zaintzen edo pintore bezala. 619 355 819

Neska bat lan bila dabil. Orduka edo interna moduan. Pertsona helduak edo umeak zaintzen eta garbiketari. Esperientzia eta erreferentziarekin. (Dokumentazioa egunean). Berehala lanean hasiko nintzateke. Tel. 632 797 416.

Senar-erazte gazte bat, lan bila dabil, baserri batean. Interno moduan edo orduka. Esperientzia handia eta erreferentziarekin. Tel. 631 916 262 / 631 882 360.

Lan bila nabil. Pertsona helduak zaintzen edo beste lan batzuk egiteko. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 916 262.

Lan bila nabil Usurbilen. Umeak edo pertsona helduak zaintzen. Esperientzia eta berehala lanean hasteko moduan. Tel. 631 882 360. Esperientzia zabala duen emakumea eskaintzen da haurrek zain-tzeko eta etxeko lanak egiteko. Edozein ordutan lan egiteko prest. 660 041 361

Lan bila nabil. Portalak edo etxeak garbitzen, umeak zaintzen... Tel. 688 889 214.

Erizain laguntzaile nazionala eskaintzen da. Tituluekin eta esperientziarekin edozein lanetan. Batez ere pertsona helduak zaintzen. Tel. 622 925 562.

Emakume euskalduna eskaintzen da, ume txikiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko, goizez edo arratsaldez, abendutik aurrera. Oso arduratsua. 671 547 567.

Saltzaile edo administratzaile moduan, lan egingo lukeen 31 urteko emakume bat naiz. Tel. 675 703 163. Berta.

Emakume bat eskaintzen da, goizez, 2 edo 3 orduz etxeko garbiketari egiteko. Tel. 620 625 823.

Emakume bat eskaintzen da asteburutan pertsona helduak zaintzeko. Tel. 646 756 555.



Urte askotarako polita etxeko guztien partez!

8 kandelaz apainduko degu bizkotxoak. Egun paregabea igaro dezazula. Muxuak.



Zorionak Jon!

San Ixidroren egunean 6 urte beteko dituzu, ondo pasa eta muxu handi bat etxekoan partez.



Aupa txapeldun!

Dagoeneko hamarkada bat bete duzu, muxu handi bat etxekoan partez!



Urte askuan Mikel!!!

Maiatzak 18an 8 urte beteko dituzu! Muxu potolo bat familiaren partez!

Heriotzak

Amagoia Zinkunegi Ugartemendia

33 urterekin hil zen maiatzaren 3an Usurbilen



Justo Ibargutxi Uribe

65 urterekin hil zen maiatzaren 4an Santuenean



Neska gazte euskaldun bat haurrak arratsaldetan zaintzeko prest eskaintzen da. Esperientziaduna haurrak zaintzen eta udalekuetan. Tel. 661 626 500. (Maialen)

Mutil gazte bat LH eta DBH-ko ikasleei klase partikularrik emateko eskaintzen da. Tel. 617 916 242. (Oinatz)

Lan bila nabil. Edozein lan egingo nuke. Interna moduan ere bai. Umeak edo helduak zaintzen, garbiketa lanak egiten, jatekoren batean harraskako garbiketarako egiten, etab. Tel. 676 188 411

Pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke asteburutan. Esperientziarekin. 657 708 895.

Pertsona bat eskaintzen da propaganda edo gutunak banatzeko. Tel. 943 364 527.

Mutil bat eskaintzen da, helduak zaintzeko, baserriko lanetan aritzeko edota edozein lanetarako. Interno moduan lan egiteko prest. Tel. 662 286 266.

Auxiliar geriatra eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketarako. Arduratsua. 622 487 879.

Lan bila nabil. Baimen guztiak ditut. Esperientzia biltegioko lanetan eta banaketan. 657 535 299.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 627 487 592.

Pertsona helduak edo umeak zaintzen lan egingo nuke. Orduka, interna edo egunean lan egiteko. Papelekin eta erreferentziekin. 631 321 981.

Erizain laguntzaile tituladuna eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko. Bertakoa eta euskaraz dakiena. Tel. 622 925 562.

Nikaraguakoa eta 28 urteko mutila, pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. Interno moduan edo nahi den bezala. Badaki etxeko lanak egiten. 687 348 223.

Pertsona helduak zaintzen esperientzia asko duen mutil bat, lan bila dabil. Gauetan, orduka edo asteburutan. Tel. 648 761 874.

Gauean laguntzaile moduan, orduka edo asteburutan lan egiteko neska bat eskaintzen da. Paperekin eta esperientzia askorekin. Gomendio askorekin. 638 602 597.

Neska bat eskaintzen da, helduak edo umeak zaintzeko. 695 602 828.

Arratsaldetan pertsona helduak zaintzen lan egingo nuke. 30 urteko esperientzia. 682 214 506.

Lan bila nabil. Garbiketarako, plan-txatzeko eta interna moduan ere bai. Larunbat, igande eta jai egunetan ere prest nago. 676 188 411.

Arratsaldetan lan egiteko prest nago. Pertsona helduak gauetan zaintzeko ere bai. 943 045 428.

Erizain laguntzaile bat es-

kaintzen da esperientziarekin. Pertsona heldu ezinduek edo amaieran dauden pazienteak zaintzeko. Etxean zein egoitzetan. 943 365 079 / 635 715 142.

Neska bat eskaintzen da garbiketarako egiteko, pertsona helduak zaintzeko... Esperientzia, erreferentzia eta papela. 618 889 530.

Lan bila nabil. Orduka, umeak edo helduak zaintzen, etxeko lanak egiten... Interna moduan ere bai. Erreferentziak. 656 186 617.

Lan egingo nuke. Garbiketarako, orduka. Gauetan pertsona helduekin lo egiteko edo zaintzeko edo konpainia egiteko prest nago. Tel. 676 188 411.

Emakume euskalduna adineko pertsonak edo haurrak zaintzeko prest. Klinika laguntzaile tituluarrekin 688826968.

BESTELAKOAK

Oily markako eguzkitako be-

taurreko graduatu eta beltzak galdu ditut, Aginagako Mapil-en dagoen bankuaren ondoan. Aurkitu badituzu deitu 649 403 890

Mobilhome bat alokatzen dugu Landetan uztaileko bigarren hamabostaldian, uztailearen 17tik 31ra. Aste bakarrerako edo hamabostaldirako alokatzeko aukera. 660 057 667

Gazteentzako logela bat, berria eta argia. Umeentzat "Maxicosi-a" handia 9 - 15 kilo, jolastoki bat, hamaka bat eta bidaiatzeko sehaska bat. 673 256 566.

Mahaspildegi elkartearen plaza bat salgai. Tel. 608 772 013.

NOAUA!ren aurrean domina bat aurkitu da. Galdu baduzu NOAUA!tik pasa. Dominan Diputacion de Ciudad Real jartzen du.

Italiera klaseak eskaintzen dira. Kontakua: 699 609 058.

Artzai txakur bat oparitu nuke. Baserri edo pabeloia

zaintzeko ona da. Bost urte ditu eta beltza da. Txerto eta mikro-txipa jarrita ditu. 943 365 228 / 660 093 071.

Landatan La mer kanpinean mobil home bat saltzen da. 656 791 676.

Kalexarren, azpiko kaleko gara-jeetan, katu txuri, marroia eta urre kolorekoa desagertu zaigu. 2015eko irailan jaioa. Norbaitek aurkitzen badu deitu: 943 371 220

Oraindik garantian dagoen sukaldeko indukzio plaka bat salgai. Tel. 645 701 879.

Egurraekin sua egiteko ekonomika berria daukagu salgai. 637974994

Borda baten bila gabiltza Usurbil inguruan. Gehienez 10.000 metro koadroko terrenoarekin. Telefono zenbakia: 608 703 669

Legorretako babarruna salgai. 10 eurotan kilo. 657 714 355

Bosch markako garbigailu bat salgai. Urte bete pasatxo dauka. Berri berria dago. 943 363 201.

Haur-sila bat salgai. "Bebe confort" marka LA modeloa. Beltza eta berri-berria dago. Burbuja eta eguzkitakoarekin. 666 373 665.

Hiru plazako eta bi plazako sofak salgai, larruzkoak, egurrezko ertzekin. Egoera onean, 500 euro negoziagarri. usurbil72@hotmail.es

Hemengo urra erosiko nuke. 634 409 888.

Denborarik ez baduzu zure maskota paseatzeko, nik lagunduko dizut. Orubeteko ibilbideak. Asteburutan. Telefono zenbakia: 688 888 176. Pablo.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenean ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean

Telefono interesgarriak

Udala.....	943 371 951	Abere-Landare Babeslea.....	943 376 650
Atez ateko bulegoa.....	900 776 776	Taxia (Angel).....	607 928 770
Udaltzaingoa.....	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz, 8 plaza).....	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada).....	943 370 148	Eusko Tren.....	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea.....	697 919 516	LurraldeBus.....	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak.....	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua.....	943 362 894
Diputazioa - Basetxea.....	943 361 215	Anbulategia.....	943 362 013
Bake Epaitegia.....	943 372 336	Amenabar botika (lehen Oa).....	943 376 076
Udarregi Ikastola.....	943 361 216	Iturralde botika.....	943 363 395
Haur Eskola.....	943 374 061	DYA.....	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola.....	943 364 600	Gurutze Gorria.....	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra.....	943 372 077	Emergentziak.....	112
Hastapen tailerrak.....	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea.....	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea.....	943 362 163
Oiardo Kirolegia.....	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa.....	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia.....	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola.....	943 371 594	Banco Guipuzcoano.....	943 370 006
Etumeta AEK euskaltegia.....	607 609 379	Banco Popular Español.....	943 370 411
Kalezar Eguneko Zentroa.....	943 365 249	BBVA.....	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza.....	943 368 770	Caja Rural Kutxa.....	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza.....	943 371 751	Argindarra - Iberdrola.....	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza.....	943 366 340	Gas naturala - Naturgas.....	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia.....	943 361 239	Telefonica.....	1004
Noaual Kultur Elkartea.....	943 360 321	Euskaltel.....	900 840 840

Goardiako farmaziak

Osteguna 12 GIL Kale Nagusia 24. Lasarte

Ostirala 13 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Larunbata 14 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Igandea 15 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Astelehena 16 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Asteartea 17 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte

Asteazkena 18 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Maiatzak 12 - maiatzak 22

Osteguna 19 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 20 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 21 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Igandea 22 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

* LARUNBATETAN, Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ URRUTIA YURREBASO, MAITANE Etxeberri auzoa 1. Florida auzoa, Hernani 943 55 77 38 22:00 - 09:00

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian ikusgai.

Agenda maiatza

13 ostirala

- "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketak Sutegiko erakusketa-irekiera 19:00etan.
- Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea. 19:00etan hasita, Sutegin. 17:00-19:00 Zubietako Kaxkapen.

14 larunbata

- "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa Sutegiko erakusketa aretoan.
- Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea. 12:30tik aurrera, Sutegin. 17:00-19:00 Zubietako Kaxkapen.

15 igandea

- San Ixidro Eguna (ikus 25. or).
- "Sagardo ibaiak, bizitza iturri" erakusketa Sutegiko erakusketa aretoan.
- Maiatzaren 29ko giza-katerako izen ematea. 12:00-14:00 Zubietako Kaxkapen.

40. Santixabel Bertsopaper Lehiaketa martxan

16 urtetik gorako usurbildarrek parte har dezakete Bota Puntutubak antolatuturiko txapelketan. Lanek inoiz argitaratu gabeak izan behar dute. 8-10 bertso artean aurkeztu ahalko dira. "Lanak egilea nor den adierazi dezakeen daturik gabe aurkeztuko dira, izengoitiz. Lanarekin batera kartazal itxi batean parte hartzailearen datu pertsonalak aurkeztuko dira". Lan originalarekin batera, 3 kopia bidali behar dira, ekainaren 8a baino lehen, helbide honetara: Usurbilgo Udala (40. Bertsopaper Lehiaketa), Joxe Martin Sagardia plaza, Usurbil 20.170.

Sariketa ekainean

Sariketa ekainean izango da, jaien bezperan. Iaz bezala, herriko jaien aurretik ospatuko den bertso saio musikatuan emango da ezagutzera epaimahaiak har-

Jaietako txupinazoa nork nahi zenuke jaurtitzea?

Helarazi zuen proposamena, maiatzaren 20a baino lehen, kultura@usurbil.eus helbidera edo papertxo batean idatzi eta Oiaro Kiroldegian, Sutegi udal liburutegian eta Potxoenean jarri dituzten kaxetan utzi ditzakezue.



8-10 bertso artean aurkeztu behar dira, ekainaren 8a baino lehen.

tutako erabakia. 200 euro eta oroigarria, 150 euro eta 100 euro jasoko dituzte hurrenez hurren, txapelketako lehen hiru sailkatuek.

Baina gerta liteke saririk ez izatea ere. "Epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek behar duten kalitaterik ez badute, sariak eman gabe gera daitezke", berri eman dute.

Maiatzaren 29ko giza katerako izen emateak

Zubietako Kaxkapen: Maiatzak 13, 14: 17:00-19:00h. Maiatzak 15: 12:00-14:00h.
Sutegin: Ostiraletan 19:00etan, larunbatean 12:30ean.
NOAUAIn: astelehenetik ostiralera, bulego ordutegian.

Datozenak

Hitzaldia: "Elikadura nahasteak: anorexia eta bulimia"

"Senda daitezkeen gaixotasunak dira". Hitz-Ahok gurasoentzat antolatu duen hitzaldi honetara ACABE elkarteko kide bat hurbilduko da. Maiatzaren 18an asteazkena, arratsaldeko 18:00etan Uda-rrigi Ikastolako eraikin gorrian.

Sagardoaren Ibilbide Turistikoaren aurkezpena

Euskal Herriko Sagardoaren Ibilbide Turistikoa aurkeztuko dute maiatzaren 19an osteguna, goizeko 11:00etan Potxoenean.

Ixabel Agirresaroberen ipuin kontaketa saioa, Bihurri Txiki ludotekan

Maiatzaren 19an osteguna, arratsaldeko 17:30ean Bihurri Txiki Ludotekan. Nori zuzendua: 4-6 urte bitartekoei. Antolatzailea: Bihurri Txiki Ludoteka.
Sarrera: doan.



JUANTXO
BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8
943 370 008

ESKAIOLA eta PLADUR
Joxean Elorza
699426042
USURBIL

ELORZA
OBRAK ETA
ERREFORMAK S.L.

661 804 688
San Esteban 5, baxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA



Nerea Laburu

Gastronomia eta sukaldaritza
arteak, 3.maila.

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI · MAIATZAK 19

OSTEGUNA, 17:30 / Aula Magna

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA · MAIATZAK 14

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · MAIATZAK 14

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MAIATZAK 21

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

#erronkarakoprest

EDERTU ZAITEZ!

Lou Lizarralde
ESTILISTA

PREZIO BAXUAK
KALITATEZKO
PRODUKTUEKIN eta
PROFESIONALTASUN
HANDIAREKIN

**KALIFORNIAR
METXAK + ORRAZTU
29€**

**L'ORÉAL
PROFESSIONNEL**

ESTETIKAN TARIFA BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5B USURBIL 943 361 971

INDIBA
DEEP BEAUTY
PRECISION BODY CARE SYSTEM

DESKONTU BEREZIAK

- ZELULEN BIRSORTZEA • LIPOLISISA • MODELAKETA • ERREAFIRMAZIOA
- AZALAREN TONIFIKAZIOA • OXIGENAZIOA • HIDRATAZIOA • LIFTING

✓ ZELULITSAREN GUTXIAGOTZEA ✓ AURPEGIA GAZTETZEA ✓ ZINURREN LEUNKETA
✓ BULARREN ERREAFIRMAZIOA ✓ SILIETAREN HOBEKUNTZA ✓ AZALAREN INDARTZEA

Jnar
ESTETIKA

BESTE TRATAMENDUAK : PRESOTERAPIA TERMOLINEA ELEKTROESTIMULAZIO TERAPIA
munalurra 2, USURBIL 943 571680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

artzabal baserria 626603600

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

APIRILEKO ESKAINTZA

GARBIKETA ETA HIDRATAZIOA:
LEHEN 30€ — ORAIN 25€

**ADINAREN AURKAKO
TRATAMENDU BEREZIA:**
LEHEN 40€ ORAIN 35€

AURPEGIKO GARBIKETA: 20€

**424 SAKONEKO NUTRIZIO
ZELULARRA:**
LEHEN 50€ ORAIN 40€

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Egurditan irekial
Nagusia 8, Usurbil tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

Betileen tintaketa
eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta etzandako
Solariuma

Muna Lurra 12. © 943 370 462

Berria!

**GOLDWELL
ELUMEN**

ileapaindegia

mistoa

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

9.00etatik 19.00etara zabalik
Zubiaurrenea 4 • 943 361 951